



ARGIA



#2.824 | 2023 / 05 / 14 | 4,00 €

M28

Badatoz foru eta udal hauteskundeak Hegoaldean

Analisiak lurraldez lurralde

26-35. orrialdeak



***Kondor Legioaren
krimenak, ahaztuta
Alemanian?***

12 | OROIMEN HISTORIKOA



***"Irulegiko
Eskuarekin zur eta
lur geratu ginen"***

16 | MANOLO ROMERO



***"Kontsumitzaile
pasiboak sortzen ditugu,
ez hiritar kultuak"***

44 | NUCCIO ORDINE



Liburu berria

Prezioa **25 €**

Bidalketa gastuak **5€**.

Bidalketa doan **40€**-tik gorako erosketetan.

Erosketak **BIZUM** bidez ordaindu daitezke.

Eskuratu ezazu ARGIA-n

azoka.argia.eus (+34) **943 37 15 45**

Euskal prentsak ekarritako zenbait kronika gogoangarri (1869-2000)

Kronika hauetan aurkituko ditugu atzerriak eta aberriak, gerrak eta kartzelak, elurrak eta itsaso zakarrak, bidaiak eta erromeriak...

Nekez irakur zitezkeen lekuetatik atera eta liburuan bildu ditu Koldo Izaguirrek.



Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 07 | MATERIALISMO
HISTERIKOA
- 07 | EZ HANKA EZ BURU


AZALEKO ILUSTRAZIOA: **XABIER SAGASTA**

Iritziak

- 21 | KIMETZ ARANA
- 22 | KARMELO LANDA
- 23 | MALORES ETXEBERRIA
- 24 | SUKAR HORIA
- 24 | ARANTZA GUTIERREZ
- 25 | KOLDO ALDALUR

Finkoak

- 39 | BIZI BARATZEA
- 42 | ARGIA KOMUNITATEA
- 43 | DENBORAREN MAKINA
- 48 | KULTUR-KRITIKAK
- 51 | DENBORA-PASAK
- 54 | EZETZ ASTEA ONDO BUKATU

SAILLEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK: **CLIPART COURTESY FCIT**

DANI CODINA



44 | **NUCCIO ORDINE**

Aritz Galarragak elkarrizketatu du *Alferrikakoaren balioa* liburu-manifestuaren egilea. Klasikoen gaurkotasunaz mintzatu dira, hezkuntzaren funtzioaz, irakasle ona izateaz...

Elkarrizketak eta erreportajeak

12 | NET HURBIL

Atzoko krimenak ahaztuta, gaurko gerrak nola saihestu?
Urko Apaolaza

16 | PERTSONAIA | MANOLO ROMERO

"Gongorako zabortegeiaren aurkako borroka Aranguren ibarra lotu zuen betiko"
Reyes Ilintxeta

26 | HAUTESKUNDEAK

Gobernagarritasun ildo nagusiak errepikatzeko joera
Erredakzioa

36 | BIODIBERTSITATEA | AITOR LEIZA

"Eolikoetan kontuan hartzen dira habia lekuak, ez elikatzeko lekuak"

Estitxu Eizagirre

52 | ARGI-KONTA | XABIER SANTXOTENA

"Gure herria matriarkalista da eta beste nortasun bat eman nahi izan diet eskulturei"

Izar Mendiguren

Jabetza

Komunikazio Biziagoa
S.A.L. Ametzagaia Taldeko partaidea

Lehendakaria

Onintza Irureta

Erredakzioa

Amaia Lekunberri, Axier Lopez, Eneritz Arzallus, Estitxu Eizagirre, Gorka Peñagarikano, Irati Irazusta, Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner, Lander Arbelaiz, Leire Artola, Leire Rodriguez, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga

Diseinua

Maitane Gartzandia

Argazkilaria

Dani Blanco

Produktzioa eta inprimaketa

Antza S.A.L.

Administrazioa

Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde

Salmenta

Karlos Olasolo, Pello Basurto

Banaketa

Olatz Korta

Azoka

Mikel Olabide

Idazkaritza

Aloña Soraluze, Bego Zuza

Web garapena

Asier Iturralde

Informatika

Iametzta interaktiboa, S.L.

Lege gordailua

SS 837-2012

ISSN

0213-909X

Batzorde parekidea

72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikoa

komertzial@argia.eus
komunitatea@argia.eus

Telefonia

943371545

Gipuzkoa

Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria

Nafarroa

Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina,
31001 Iruñea

Ametzagaiña taldeko kidea da ARGIA
honako enprekin batera:

antza
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

iametzta

ADUR software
productions

Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaltu eta argitaratu ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero.



Lizentzia hau baliagarria da testuentzat eta, argazkien eta ilustrazioen kasuan, ARGIAren sinadura daramanentzat soilik.

OLATUKOOP

EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN
SAREKO KIDE GARA



ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDETZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA



Jopuak

Ez da film bateko errodata. Ezta XV. mendeko irudia ere. Hitzez justifikatu ezin denak fikzioa, epika eta flashen distira behar ditu. Areago, helburua bada gutxiengo absolutua gehiengoaren bizkar bizitzen eta agintzen jarraitzea. Munduko ikur kolonialik ezagunenak aldatu du koroaren azpiko burua. Ingalaterrak eta haren menpeko lurraldeek —Gales, Eskozia eta Irlandaz gain, munduan barrena beste 14 herrialde ere bai— inork aukeratu ez duen agintari goren berria dute. Protestarako pizgarri dena espektakulu gisa saldu digute Euskal Herriko hedabide ez independenteek. Oroitu ez dezagun, akaso, hego euskal herritarrok ere ez garelako herritar, okupatzailearen jopu baizik.

 REUTERS  AXIER LOPEZ



Euskal filologia desagerrarazi nahi du Espainiako Gobernuak unibertsitateetan, arlo espezifiko gisa

MIKEL GARCIA IDIAKEZ

Unibertsitateen legea onartu du Espainiako Gobernuak eta prest duen errege-dekretua aurrera ateraz gero, hainbat ezagutza-arlo murriztu eta desagerraraziko ditu, tartean euskal filologia (eta katalana eta galiziarra): beste ezagutza-arlo zabalago batzuen menpe geratuko da. Irakasleen profilari eta prestakuntzari eragingo dio erabakiak, etorkizunean euskal filologian espezializatutako irakasleak izateari traba jartzen baitio. “Edozein aldaketa benetan zaurgarri izan daiteke”, ohartarazi dio ARGIari Eneko Zuloaga irakasleak.

Uneotan, 190 ezagutza edo jakintza-arlo dituzte unibertsitateek, baina murriztu egin nahi ditu Espainiako Gobernuaren errege-dekretu proposamenak. “Murrizten diren arloak batez ere arte eta humanitatei loturikoak dira, berriz ere enpresen zerbitzura dagoen unibertsitatean sakontzen duelako legeak”, salatu dio ARGIari EHUKo irakasle Miren Larrionek.

Euskal filologia (eta katalana eta galiziarra) ezagutza-arlo gisa desagertzea erabaki politikoa dela iritziz dio Larrionek: Filologia Hispaniko eta Klasikoen arloan edota Hizkuntza Modernoen eta haien Literaturen arlo barruan kokatzen ditu aipatu filologiak, eta hortaz,

“Euskal Filologiaren beregaintasuna aldarrikatzen dugu, esparruak dituen beharrezane (ikerketan, ikasle-irakasleen prestakuntzan...) behar bezala erantzun ahal izateko”

“ahuldu egiten ditu”. Praktikan, irakasleek izango duten profilaz ari gara. Adibidez, jakinik unibertsitateko edozein irakasle/ikertzaile ezagutza-arlo batera atxikita dagoela, ezagutza-arlo zabalago horietakoren bat ikasi duen irakaslea ikusi dezakegu Euskal Ikasketak irakasten (adibidez, filologia alemaniarra ikasi duen euskalduna), espezifikoki euskal filologia ikasketak izan ordez, kontatu digu Larrionek.

Euskal Ikasketak egin nahi dituenari eragingo dio? Eragin diezaiokela uste du Larrionek: Euskal Filologia Saila beharrean sail zabalagoa egongo

bada, etorkizunean edukiez, norabideez eta abarrez erabakiko dutenek ez dute zertan euskal filologian espezializatuta egon (irakasleen profila zabalagoa izango da). “Jakintza-arloak murriztuta, ikasketak horiek desagertzea errazagoa da”.

Eneko Zuloaga Euskal Filologia Sailako irakaslearentzat ere, filologiak berezko duten espezifikotasuna galtzeak ekar dezake “irakasleen espezializazioari hainbesteko tarterik ez uztea, irakaskuntzaren/departamentuen berregituraketa... Euskal Filologiaren kasuan, edozein aldaketa benetan zaurgarri izan daiteke, oro har unibertsitate gutxitan ikas baitaiteke gaur-gaurkoz”.

EHU-TIK ALEGAZIOA

Hori dela-eta, dekretuari alegazio bateratua aurkeztu diote EHUKo Euskal Filologiaren arloko irakasle, ikertzaile, katedradunek eta Euskaltzaindiak: alegazioan, “Euskal Filologia eta Hizkuntzalaritza orokorra arloen beregaintasuna defendatu dugu. Euskal Filologiari begira, ikerketa-esparru bezala berez eta tradizioz duen beregaintasuna nabarmendu dugu; areago, beregaintasun horren beharrezana aldarrikatu dugu, Euskal Filologia deitzen dugun esparruak dagokion lekua izan dezan eta esparruak berak dituen beharrezane (ikerketan, irakaskuntzan, ikasle-irakasleen prestakuntzan...) behar bezala erantzun ahal izateko”, azaldu digu Zuloagak.

KATALUNIako GOBERNUA: “ATZERAPAUso HISTORIKOA DA”

Dekretuak filologia katalanari ere eragingo dion heinean, Kataluniako Gobernuak alegazioak aurkeztu ditu, erabakia “atzerapauso historikoa” dela eta “onartezina” dela iritzita. Filologia katalanaren ikasketek gogor eragiten diola adierazi du Unibertsitateetako kontseilariak. Junts alderdiak berriz, senatura eramango du gaia, dekretuak filologiak “ikusezin” bihurtzen dituela-eta. ●



MATERIALISMO HISTERIKOA

Itoz



UXUE APAOLAZA LARREA

Batzuetan ez dakit zein neurritan kapitalismoak eta biok bat egin dugun suntsipen grina batzuetan. Eginak eman zaizkigun, eta gure aukerakoak ez ziren kontuek itogarriak ziruditen, erabakimena, aldaketa oztopatzen zutelako.

Familia, adibidez, diseinatuta dagoen moduan, edozein eraldaketaren guztiz kontrakoa iruditzen zitzaidan, balio kontserbadoreen gordailu, kumearen arrakasta asimilazioan oinarritzen baitzuen. Baina, azkenean, ez zen denon salbaziora eramango gintuen iraultza baten alde atomizatu. Ez gara kolektiboz aldatu, lauko familia nuklear batean gutxienez hiru etxeren jabe izatera eramán gaitu (bakoitzak berea), etxe horiek ordaintzeko hipotekak eskatzera, bakoitzak bere soldata edukitzeko lanera.

Koadrila finkoegiak, bikote finkoegiak ere oztopo, erlijioak eta nazioak zer esanik ez. Horraino kapitalismoarekin edukitako pseudokointzidentziak, eta ez guztizkoak. Baina lanak ere, hobe malguak, esan digute, hobe bidaiariak, hobe monotonoak ez badira, hobe bihar non egongo zaren ez badakizu. Zure bizitza ere hobe abentura bat bada. Eta dagoeneko sentitzen ditut helburuak guztiz urruntzen. Estatua ere, gure partez erabaki dezakeen zera hori, oztopo, azkenean.

Eta orain, dena atomizatu, baina ezer eraiki ez denean, ez denontzat, batez ere, ez behar dutenentzat, erabakimenak ez du espaziorik irabazi. Bakarrik ere ez baita ezer erabakitzen, bakarrik biziraupenak obedientzia handiak eskatzen baititu. Eta eginak eta erabakimenaren aurkakoak diruditen azken hondarrak ere lehertuko ditugu: osasuna, hezkuntza... osasun-zentroa aukeratzeko, eskola aukeratzeko eskubidea nola uka daiteke, ez?

Eta adinean aurrera ohartu gara zoriontasuna ez zegoela abenturan, errutina atseginetan baizik, bestea ziurgabetasuna eta antsietatea zela; zoriontasuna ez zela bisuteriazko erabakimena, segurtasun kolektiboa zela gehiago. Orain, bakardadea da itogarria, ez irakurtzeko behar dena, ibaia gurutzatzeko zubirik gabe uzten gaituena baizik. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com



Euskarafobia

Bilboko Administrazioaren Auzien 1. Epaitegiak atzera bota du Erandion udaltzain jarduteko lanpostu bati ezarritako hizkuntza eskakizunaren derrigortasuna, B2 mailarena hain zuzen. Sententzian aipatzen dira Uliazpi fundazioaren hizkuntza eskakizunaren kontra erabilitako argudioak.

Presoak

Asier Ezeiza preso ohia berriz espetxeratzeko agindu dute. Hemeretzi urteko espetxe zigorra ezarri diote, Juan Priede PSEko zinegotziaren hilketan parte hartu zuten ETako kideei laguntzea egotzita. Hamabi urte egin zituen preso, zigorra osorik beteta 2020ko maiatzean aske utzi zuten arte.

Energia

Aixeindar enpresak Azazetako (Araba) zentral eolikoan ezarri nahi dituen zortzi haize erroten proiektuak Eusko Jaurlaritzaren baimena jaso du. Proiektuan hainbat aldaketa egin beharko dituzte, ingurumenean izango duen eragina murrizteko. Hilabeteko epea dago errekurtsioa jartzeko.

EKONOMIA

Eguraldiak ez du lehorte politikoa konponduko



AINHOA ETXAIDE
AMORRORTU

Nafarroaren erdialdean eta hegoaldean hainbat uza galdu dira edo galtzeaz dira eguraldiak laguntzen ez badu. Araban inoiz baino txikiagoa izan da oliba bilketa, eta abeltzainak ez daude lasaia, udaberri hasieratik ari direlako udarako gorde-takotatik tiraka. PAC deritzoten Nekazaritza Politika Bateratuaren laguntzak eskuratzeko baldintzak malgutzea izango da administrazioaren erantzunetako bat; galerei aurre egiteko diru-laguntza zuzenak eskaintzea bestea. Bigarren bideak Madril en errege dekretua egitea eskatzen duenez, laguntza zuzenak izan daitezke, baina ez berehalakoak, eta nekez behar bestekoak.

Alarma guztiak piztu dira euri faltagatik. Edo euri falta tarteko, ez baita gauza bera, eta jakina denez egoera irakurtzea eta ulertzea funtsezkoa da arazoari aurre egingo badiogu. Aldaketa klimatikoak lehen sektorean duen eraginari eta izango dituen ondorioei erreparatu gabe, ezin da egin azterketa egokirik. Baina aurrera ez ezik, atzera begiratuta ere ulertzen da Nafarroako nekazaritzaren eta abeltzaintzaren errealitatea. Orain 30 urte finkatu ziren politikek zuzentzen dute lehenengo sektorea, politika zahar eta zaharkituak, ltoitzeko urtegiari esker ureztatzea ziurtzat jotzen zutenak, besteak beste.

Lehen sektorea funtsezkoa da bizitza sostengatzeko, gure elikaduraren gainean erabaki ahal izateko. Eta zaintzarekin gertatu bezalaxe, sektoreak politika ekonomikoetan duen leku eta aitortza eskasak ez du zerikusirik benetan duen garrantziarekin. Hori zuzendu ezean, ezin esan aldaketa klimatikoa izango denik abeltzaintza ito, lurra lehorte eta arrantzaleak lehorrean utziko dituenak. ●

ANALISIA



Egungo DBH ez da guztiontzat

ESTITXU EIZAGIRRE KEREJETA

DBH berritzeko curriculumak martxan du Jaurilaritzak. Asmoa da lehen zikloa eremuka irakastea, ez ikasgaitan zatituta, eta konpetentziak izatea ebaluatuko direnak. Ongietorriak bitez oinarritzko aldaketa hauek. Derrigorrezko hezkuntza 16 urtera artekoa izatea lorpen ederra da, baina beste buelta bat ematen ez bazaio, ikasleentzat eta familientzat lau urteko aldapa gogorra bihurtzen da sarri. Ikasle akademikoak sasi-ordekan eta ez akademikoak ezinean joaten dira tropelean, lehen froga gisa, guztiak egunero sei orduz aulkian eserita egotera behartuz. Etxerako lanak eta prestatu beharreko azterketak gehituta, egun askotan soldatapeko langileok baino ordu gehiago eman behar ditu 12 urteko ikasleak lanean eta ez zaizkie asteburuak deskonektatzeko errespetatzen.

Derrigorrezkoa bada, ikasle guztientzako behar du. Lehen hezkuntzan badira pedagogiaz eta izaeraz oso anitzak diren eskolak, eta zailtasunak zailtasun, ikasle guztiei erantzuteko egiten den saiakera nabarmenagoa da. DBHn ikaslea erdigunean al dago? Zein ikasle mota? Nola egin ikasleak, guztiak, ezaugarri anitzekin, erdian egoteko? Nola irakatsi bakoitzak bere ezaugarrien arabera ikas dezan? Hona birplanteatu daitezkeen hainbat puntu, DBH "ikasteko balio dutenak eta ez dutenak" etiketa banatzaile eta galbahe izan beharrean, ikasle guztiak ikasketetan aurrera bultzatuko dituen motor izan dadin:

Tamainak inporta du. Makrozentro konzentratuen ordez, auzoka, herrika eta bailaraka ikastetxe askoz txikiagoak (egungoen kopuru erdiak hartzen dituztenak) beharrezko dira. Eredu makroa traba da denerako, ez bada *low cost* -erako.

Itzuli haurtzaroari kendu dizkiogun bi urteak. Lehen batxilergoan 14-15 urterekin ikasten genuena orain 12-13 urterekin ikasazten diegu. Legea egun batetik bestera aldatu zen, baina gizaabereon garapena ez. Ulertu ere ez dute egiten askotan, azterketarako buruan sartzen saiatzen direna. Zergatik ez itzuli Lehen Hezkuntzako ikastetxeetara, gutxienez DBHko lehen bi urteak? Ikastetxe kontzertatuek LH eta DBH osoa ematen badute, publikoek zergatik ez? Nerabeek oraindik behar dute LHn dagoen aniztasuna, irakasleen gertutasun eta akonpainamendua, hezitzaile ikuspegia... eta ez ikasgai zehatz batean jakintza handia frogatu duen aditua, ez badu hezkuntzarako bokaziorik eta gaitasunik. Ez al du errazago egokituko DBHko lehen zikloa eremuka lan egiteko lehendik proiektuak ari den LHko irakasleak, "ni kimikaria naiz" ihes egiten dion DBHko horrek baino?

DBH hobetzeko prozesuetan, izan daitezela Hezkuntza Berezikoko irakasleak gidari eta gehiengo, erabakiguneetan. Haiek bai, hezitzaile izateko bokazioz formatu dute bere burua, eta egunerokoan saiatzen dira ikasle guztiek gaingitu dezaten. Haiek badakite ikasle guztiak ez direla berdinak, denei ezin zaiela emaitza bera eskatu, bakoitzak bere koska gaingitu dezan ikaskuntza prozesua moldatu behar dela... eta, batez ere, ikasteko prozesuan ez dutela irakaslearen azalpenek eta testuliburuak soilik parte hartzen: etxeko egoerak, bizitzako gorabeherak, bakoitzaren izaera-trebetasun-jakin-minak, ikaskideen arteko harremanak... Horiek denak ikasgelaren parte direla eta landuak izatea merezi dutela badakite. ●

81

espedientetan prebarikatu eta 39 aldiz dirua bidegabe erabili zuen Ana Urchuegua Lasarte-Oriako alkate ohiak, kartzela-zigorra saihesteko Fiskaltzarekin egin duen akordioaren arabera. 2000 eta 2009 urteen artean Nikaraguara bideratutako funtsekin egin zituen delituak.

258.000

euro balio dute batez beste hipotekek EAEn, eta Nafarroan berriz, 187.000 euro. Hipotekek eta lurzuaren prezioek gora egin dute Hego Euskal Herrian azken urtean.

8

kazetari hil dituzte dagoeneko 2023an, mundu osoan, beren lana egiteagatik. Atxilotuta daudenak berriz, ehunka dira. Iaz, 85 profesional hil zituzten.

“Arartekoak arrazoia eman dit, baina berdin jarraitzen dugu, EHUK ez dit laguntzailerik jarri”

NOELIA DA COSTA

EHUKo ikasle honek garun paralisia du eta unibertsitatean laguntza behar du komunera joan, berokia erantzi edota ordenagailua mahaian jartzeko. EHUK laguntzailea jarri gabe jarraitzen du.

ARGIA.EUS (2023-05-03)



**“FRANKISMOAREN HERENTZIA
NABARMENA DA ESPAINIAKO
INDAR ARMATUETAN
ETA JUSTIZIAN”**

PAKO SUDUPE

Frankismoaren errepresioari buruzko liburua kaleratu du idazleak.

2023-05-03



**Fon
Garcia
Laña**

JAUNA

Mikel Garcia Idiakez
lankidearen aita

*Une latz hauetan,
bat egiten dugu
famiaren saminarekin*

ARGIAko lagunak

Jakitetik egitera



DIANA FRANCO

Orain dela zenbait urte, lagun batek hainbat gogoeta partekatu zuen nirekin, digitalizazioa eta zaintzari lotuta. Eskarmentu handiko emakumea da, munduan bere izateak zauri txikiena egiteko bidean, izan behar dituen bizitza on baterako jokabideak oso barneratuta dituena. Eremu digitalean izan beharreko erabilera osasuntsuaz aritu ginen: ondo elikatzen ikasi dugun moduan, eremu digital alternatiboak eraiki ahala erabilera osasuntsua zergatik ez landu? Nire erantzuna nahiko zurruna izan zen: “Nik badakit zer den ondo elikatzea eta badakizkit zeintzuk diren kirola egitearen onurak, baina txarto elikatzen naiz, eta ez dut kirolik egiten”. Gauzak jakitetik gauzak egitera dagoen espazioa zeharkatzea ez nuen erraza ikusten. Ez nire bizimoduan.

Egun, gauzak jakitetik gauzak egitera dagoen espazioa ez dut hain zaila ikusten, nire bizitzan zaintzak pisu handiagoa hartu duen heinean. Ezin dugu pentsatu dena “ez jakitea” eta “ez ulertzea” dela, baizik eta aldaketa egiteko behar den egoera edo nahia ez duela pertsonak.

Hori guztia esanda, proiektu interesgarri baten berri ematera nator, Zaintza Digitalen Sare Transfeministak garatua: <https://pradododia.org>. Webgune honetan, autodefentsa digitalaren ideia barneratzeko elikaduraren analogia darabilte egileek. Eta eremu digitalean gure egitekoak gure bizitzetan ahalik eta kalte txikienak eta onura handienak ekarri ditzan, zenbait errezeta partekatzen dituzte. Menuan honakoak aurki ditzakezu: garbiketa eta antolakuntza sukaldean garrantzitsua den gisan, sare sozialetan garbitu dezagun gure arrastoa, pribatutasuna zainduz. Bada zenbait elikagai funtsezko; interneten, segurtasuna da funtsezkoa. Zaporea eman zure bizitzari osagai ugari erabilita, hori da fedibertsoan aurkituko duzuna: pribatutasuna eta segurtasuna zaintzen dituzten aukera eskuragarriak. Eta abar.

Eremu digitala modu osasuntsuan erabiltzen hasteko gida polita da, pixkanaka geureganatzen joan gaitezkeena, norberaren aukera eta nahien arabera, bizitza osasuntsuagoa egiteko bidean. ●



UNICEF

12 milioi neska ezkonduarazten dituzte urtero munduan

AXIER LOPEZ

Nazio Batuen Haurren Laguntzarako Funtzak (Unicef) maiatzaren 3an argitaratu duen azterketaren arabera, haurren ezkontzak behera egin du munduan, baina oraindik badira munduan haurtzaroan ezkondu diren 640 milioi pertsona. Urtero gurasoek 12 milioi haur ezkontzen dituzte, gehienak, jakina, emakumeak dira.

Unicefeko zuzendari Catherine Russell estatubatuarraren arabera, “osasun eta ekonomia krisiak, gatazka armatuen gorakadak eta klima aldaketaren ondorio suntsitzailak eragin zuzena dute familiek haurren ezkontzan segurtasun sentazio faltsua bilatzean”.

Haurtzaroan ezkontzen diren neskek berehalako eta bizitza osoko ondorioei egin behar diete aurre: eskolan egoteko aukera gutxiago dute eta haurdunaldi goiztiarra izateko arrisku handiagoa. Horrek, aldi berean, haurren eta amen osasun arazoak eta heriotza arriskua areagotzen ditu.

100 herrialde baino gehiagoko datuetan oinarrituta osatu dute analisia, eta horren arabera, neskek beren familatik eta lagun artetik isolatzea eragiten du umeen ezkontzak, baita komunitateetan parte aktiboa izateari uzteko arriskua handitu ere. Are gehiago, umeen ezkontzak larriki eragiten dio buru osasunari eta ongizate orokorrari.

Unicefen datuen arabera, hegoaldeko Asia 55 urte barru haurren ezkon-

tzak desagertzeko bidean dago, nahiz eta eskualde erraldoi horretan neska ezkonduen ia erdia (%45) bizi den. Hirutik bat Indiakoa da. Bigarren proportzio handiena duen eremua Saharaz hegoaldeko Afrika da (%20). Erdialdeko eta Hego Amerikan eta Kariben 58 milioi neska daude ezkonduak.

Erostekeo ahalmen gehien duten gizarteetan ez da oso ohikoa haurren ezkontza, baina pobretuenen artean ohikoagoa izaten jarraitzen duela dio Unicefek. Txostenean azpimarratzen dutenez, gatazka armatuek, COVID-19aren ondorioek, diru-sarreraren jaitzierak, eskola uzteak eta, bereziki, pobreziaren gorakada orokorrak haurren ezkontza bultzatzen duten baldintzak sortzen laguntzen dute.

KLIMA ALDAKETA ETA EZKONTZA

Hasiera batean lotura zuzenik ez duten bi gai direla iruditzen bazaigu ere, Unicefek ateratako ondorioek eragiten dute klima aldaketak eragiten dituen muturreko fenomeno meteorologikoei neskatoak ezkonduak izateko arriskua handitzen duela.

“Frogek erakusten dute fenomeno meteorologikoei zerikusia dutela haurrak ezkontzeko arrisku handiagoarekin. Hondamendi meteorologikorik gertatu den urtean, %18 igotzen dira batez beste haurren ezkontzeak, hau da, bost urtez egindako aurrerapenak ezabatzen ditu aldi batean”, dio analisiak. ●

PPk informazio faltsua eman die kazetariei, Antépara errugabetu nahian

 ZIGOR OLABARRIA OLEAGA

Gasteizko PPko kide Gustavo Antépara: obra “klandestinoak” legez kanpoko pisu turistikoetan ikerketa erreportajea argitaratu zuen esklusibean ARGIAk apirilaren 25ean. Hainbat hedabidek jaso zuten bere edukia hurrengo egunetan. PPk Antépararen errugabetasuna defendatu du, eta hori frogatu nahian Antéparak berak alderdiaren eskutan utzi dituen dokumentuak erakutsi dizkie horrela eskatu duten kazetariei, ARGIAri tartean. ARGIAk, bere aldetik, Antéparak emandako informazioa faltsua dela frogatzen duten dokumentuak erakutsi dizkio PPri. Alderdiak, hala ere, Antépara babesten jarraitzeko hautua egin du.

Apirilaren 27an deitu zuen ARGIAk PPren Gasteizko egoitzara, eta alderdiaren komunikazio arduradun Ainara Morenorekin hitz egin zuen. Antéparak Luxuryrekin duen lotura bakarra “zenbait partizipazio” direla dio PPk. ARGIAk zabaldutako informazioaren aurka, Morenok ziurtatu zuen Antépara ez dela Luxury enpresako presidentea, eta ez dela inoiz izan. Horrez gain, PPren arabera Antéparak ez dio utzi enpresaren administratzaile bakarra izateari 2022ko uztailean, ARGIAk argitaratu moduan, baizik eta 2019an (hau da, Luxuryk “obra klandestinoak” egin eta legez kanpo hainbat pisu etxebizitza turistiko bezala esplotatzeari hasi aurretik). Azken hori frogatzen duten dokumentuak dituela azaldu zion Morenok ARGIAri, eta horiek erakusteko prestutasuna agertu zion. Maiatzaren 3an ikusi zituen dokumentu horiek ARGIAk, Gasteizko PPren egoitzan.

DOKUMENTUAK

Bi idazki erakutsi dizkio PPk ARGIAri (kopiak egiteko edo argazkiak ateratzeko baimenik eman gabe). Notario-bat, eta merkataritza-erregistroan aurkeztutako bigarren bat. Morenok esandakoaren kontrara, ordea, dokumentuen irakurketatik ondorioztatzen da Luxuryren administratzaile aldaketa 2022ko uztailearen 1eko batzar orokor batean erabaki zela (eta ez 2019an), ARGIAk argitaratu zuen moduan.



ARABAKO ALEA

Horrez gain, ARGIAk hiru dokumentu ditu frogatzen dutenak, batetik, Antépara administratzaile bakar bezala ari-tu dela Luxuryn 2022ko uztailean arte eta, bestetik, presidente izendatu zuela enpresaren Batzar Orokorrak 2022ko ekainaren 30ean.

FROGEN GAINETIK PPK ANTÉPARA BABESTEN JARRAITZEN DU

Aipatu hiru dokumentuak paperean erakutsi zizkion ARGIAk PPko komunikazio arduradun Morenori maiatzaren 3an, eta honek informazioa “alderatu” behar zuela adierazi zuen. ARGIAk azaldu zion bere eskutan duen informazio hori argitaratuko zuela hurrengo egunetan, eta bi egunen epean PPK ARGIAri bestelako posizio bat helarazi ezean, ulertuko zuela alderdiak Antéparak emandako argudio eta dokumentuak ontzat ematen jarraitzen duela. Ordutik, PP ez da ARGIArekin harremanetan jarri.

PP-K BALORATZEN EZ DUENA

ARGIAk argitaratutako informazioaren zati batez informazio faltsua eman dute PPK eta Antéparak. Baina aspektu garrantzitsuenen inguruan ez dute adierazpenik egin.

ARGIAk hainbat aldiz galdetu zion Morenori ea Antéparak azalpenak eman dizkion alderdiari hainbat etxebizitza pisu turistiko bezala esplotatzeagatik derrigorrezko lizentzia izan gabe. “Ez dugu baloratuko”, adierazi zuen azkenik.

ARGIAk galdetu zion ea PPK ez duen interes gatazkarik ikusten Antépararen jardueran: 21 Zabalguneko administrazio kontseiluko kide da PPren ordezkari bezala (bertan hartzen dira Gasteizko hirigintza arloko erabaki nagusiak); etxebizitza turistikoaren araudia aldatzeko lobby lana egiten ari da Arabatur elkartearen bitartez; presidente den enpresak etxebizitzak turistikoak legez kanpo esplotatzen ditu. “Ez dugu baloratuko”, erantzun zuen Morenok.

Azkenik, ARGIAk galdetu zion ea PPK baloratu duen aukera Antépara 21 Zabalgunetik ateratzekoa, edo maiatzeko hauteskundeetako zerrendetatik kanpo uztekoa (zazpigarren postuan doa Gasteizen, hamalugarrenean Araban). Ezetz erantzun zuen PPKo komunikazio arduradunak.

Informazio hau sakonago jorratuta irakurri eta dokumentuak ikusteko, jo ARGIAren webgunera. ●



ATZOKO KRIMENAK AHAZTUTA, GAURKO GERRAK NOLA SAIHESTU?

Gernikako bonbardaketatik harago, Alemanian apenas daukate Kondor Legioak 1936ko Gerran herritarrak sarraskitzen izandako parte hartzearen berri. Carmela Negrete kazetariak kontatu du oroimen falta hori *Contexto* aldizkarian. Halako zorrak kitatu gabe, nola saihestuko dugu gaur egungo Europaren joera belizista?

 URKO APAOLAZA AVILA

1 937ko apirilaren 26a. Alemaniako Kondor Legioko eta Italiako Aviazione Legionariako hegazkinek Gernika garretan jarri eta herriko eraikinen %85 suntsitu zuten. Hildakoak 2.000 baino gehiago izan zirela uste dute gaia ikertu duten historialariek. Halako hondamendia Pablo Picassoren begietan iltzatuta geratu zen eta bere margolanak Gernika sinbolo bihurtarazi zuen mundu osoan.

Beste urte batez, bonbardaketaren sarraskia eta suntsiketa gogoratu dituzte aurten ere Gernikan. Ohi bezala garrasi egin du Astrako sirenak 15:45ean, duela zortzi hamarkada baino gehiago hegazkin faxistak hurbiltzen hasi zirenean egin

zuen moduan. Eta kandelen ibilbidea osatu dute herritarrek iluntzean.

Baina lehen aldiz Espainiako Estatu goi ordezkari bat izan da lore eskaintza ekitaldian: “Ohore bat da hemen egotea, bonbardaketarekin eraso zuten Errepublikako Gobernu legitimoa ordezkatzeko”, bota zuen Espainiako Gobernuko Presidentetzarako ministro Felix Bolañosek, esku bat bihotz parean jarrita. Askorentzat bihotzean aitzokada sartzea bezala izan da ordea. Eta giroa ez du lasaitu espainiar agintariek Bizkaiko Batzar Etxea “oroimen leku” izendatzeak.

Berriz ere errelatoaren borroka. Zeinen oinordeko da egungo Espainiako Gobernua? Errepublika demokratikoa-

rena? Edo dena ondo loturik utzi zuen Francoren erregimenarena? Trantsizio garaian gauzak nola egin ziren ikustea besterik ez dago galdera horri erantzuteko. *Guernica* Gernikara ekimenak Argia.eus-eko eragileen plazan idatzi duen gisan, “jakina da frankismoaren iraupen sinboliko eta instituzionalaren jarraipenaren aurrean ez-ikusiarena egitea” izan zela trantsizio politiko horren oinarrietako bat.

Haatik, 1937an gertatutakoaren memoria eta aitortza falta ez dira soilik Espainiako Gobernuaren kontu bat. Gernikako sarraskia zuzenean eta odol hotzean exekutatu zuen Luftwaffe Alemaniako abiazioak, baina alemaniarren





KONDOR LEGIOA

Alemaniko Luftwafferen konpainia
bereziko soldaduak Berlingo
Brandeburgoko atearen 1939ko ekainean
Hitlerren aurrean egindako desfilea.

ALEMANIAKO HISTORIA MUSEOA

artean Gernika apenas da margolan baten izenburua.

Hala dio Carmela Negrete *Ctxt* aldizkariko Berlingo korrespontsalak *El 'Guernica' o la punta de iceberg* ("Guernika hala izebergaren punta") izeneko erreportaje zabalean. Kondor Legioak 1936ko Gerran izandako parte hartzeaz Alemanian duten ikuspegia aztertu du, eta dioenez, Picassoren *Guernica* "Francoren estatu kolpean Hitlerren Alemaniak izandako parte hartzearen irudi bakarra izatera igaro da". Bere ustez, Alemania sarritan oroimen historikoa lantzeko eredu gisa hartu izan den arren, kasu honetan oso urrun dago baieztapen horretatik.

**Alemanian askok Kondor
Legioaren historia
bere protagonistek
azaldu izan duten
moduan ikusten dute:
"Abentura sinpatiko bat
balitz bezala"**

DESAGERTUTAKO ARTXIBOekin, NOLA LANDU HISTORIA?

Herrialde hartako hedabide eta museoek albo batera utzi dituzte abiazio naziak *Spanienkrieg* edo "Espainiako Gerran" egindako beste sarraskiak. Adibidez, LeMO Online Museo Biziaren proiektuan, ez da zipitzik esaten alemaniarren interbentzioak suposatu zuenari buruz, eta Franco diktadorea "politikari eta militar" gisa deskribatzen da soilik, Negretek salatu duenez. Kondor Legioaren artxihoak desagertu egin dira, eta bere ekintzen inguruko informazioa eskatu izan denean, Asturiasko Gobernuak egin bezala, ikerketarik ez dagoela erantzun dute Alemaniako administrazioetatik.

Baina jakin badakigu 1936ko abuztuan gerra hasi eta berehala, Adolf Hitlerrek gerrarako materiala eta “boluntarioak” bidali zituela militarren altxamendua babestera, eta Kondor Legioak gutxienez 5.000 lagun izan zituela gerra fronteant... 600 hegazkin aparaturekin batera. Hugh Thomas historialari ospetsuarena da kontaketa hori.

Xabier Irujo Renoko Unibertsitateko ikerlariaren arabera, Luftwaffek gutxienez 650 bonbardaketa egin zituen Euskal Herrian, eta lurraldea esperimentatzeko toki bezala erabili zuen. Gernika baino hilabete lehenago hegazkin alemaniarrek Durango txikitu zuten, eta gero Eibar, eta beste hainbat herri ere bai. Gernika arratsaldean bonbardatu zuten egun berean, ordu batzuk lehenago, Kondor Legioko Junker 52 bonbardaketariek eta Heinkel 51 ehiza hegazkinek eraso jo zuten Munitibarren: “*Deskargatzen zian ta atza buelta. Eta etorten zian 'kazaku' esaten geuntzen guk, ametralladorakin ta... akabo!*”. Juana Bollar munitibartarren hitzak dira, Ahaztuen Oroimenak berriki argitaraturiko *Munitibar 1937/04/26. Aire-eraso baten kronika* liburuan irakur daitezke. Hortaz, “beste Gernika” asko ere izan ziren Kondor Legioaren jomugan.

Alemaniko Parlamentuak 1997an eskatu zion barkamena ofizialki Gernikako herriari. Baina, Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko historia irakasle

David Alegrek *Ctxt*-ko kazetariari azaldu dionez: “Picassoren eraginagatik interes politikoa Gernikan fokalizatu izana ez da kasualitatea, eztabaida publikoa blokeatu nahi duen kezko lehergailu bat da, Alemaniak [Espainiako Estatuko] errepublika demokratikoaren deuseztatpena izan zuen erantzukizuna estaltzeko”.

Are gehiago, Alegrek dio alemaniar jendarteak bere herrialdearen izenean egin ziren krimenekiko “indiferente” izateko joera duela azkenaldian, eta arreta gehiago jartzen zaiola hango herritarrek Bigarren Mundu Gerran jasandako sufrimenduari, Hirugarren Reichak eragindakoari baino. Hala, askok Kondor Legioaren historia bere protagonistek azaldu moduan ikusten dute: “Abentura sinpatiko bat bezala”.

Agian horrela uler liteke Berlingo etorbide oso batek, *Spanische Alle* (Espainiar etorbidea) delakoak izen hori mantentzea. 1939ko ekainean Kondor Legioko milaka soldaduk desfilatu zuten Brandeburgoko Atean Adolf Hitlerren aurrean, eta haiek omentzeko jarri zioten izen hori etorbideari. “Ondoko plaza txiki batek, berriz, Gernika izena darama”, azaldu du Negretek.

NAZIEK GOI KARGUETAN JARRAITU ZUTEN

1945ean Alemaniak kapitulatu ostean “desnazifikazio” prozesu sakon bat hasi zela uste duenak, irakurri dezake *Die Ben-*



jamins. Eine deutsche Familie (Bejamindarrak. Alemaniar familia bat) liburua, 2020 urtetik Trotta argitaletxeak kaleratutako gaztelaniazko bertsioa ere badu horretarako. Uwe-Karsten Heye kazetari eta diplomatikoak idatzia, gerraosteko bi Alemaniaren, mendebaldekoan zein ekialdekoan, jazotakoa ederki islatzen du Walter Benjamin filosofoaren eta bere familiaren bidez, batez ere Justizia ministro izan zen bere koinata Hilde Benjaminen bidez.

Mendebaldeko Alemanian –Alemaniako Errepublika Federalean– Estatuko eta gizarteko goi karguetan jarraitu zuten nazien portzentajea oso altua izan zen. Nazionalsozialismoaren “jarraitzaile” bezala agertzen ziren epaileek, adibidez, euren postuak mantendu zituzten; Saxonia Beherea bezalako estatuetan ez zen kasik ezer aldatu eta juristen %95ak iragan nazia zuen: “Jurisprudenzia ez zen oinarritzen balioen sistema batean, baizik eta botere sistema batean”, dio Heyek. 1951n egindako inkesta baten arabera, mendebaldeko alemanen ia erdiak uste zuen erregimen naziak “bere gauza onak ere izan zituela”.

Oso bestelakoa zen egoera ekialdean, Alemaniako Errepublika Demokratikoan, zeinean kriminal nazien espediente eta zerrendak argitaratzen zituzten politikoki egoki iruditzen zitzaizkion. Hilde Benjaminek gidatu zuen prozesu hori. Baina mendebaldeko nazi zaharrentzat aitzaki ezin hobea bihurtu zen “ministro odoltsuaren” pertsekuzio hori, euren iragana ahaztu arazteko. Heyek dio 1950eko hamarkadako *Der Spiegel* edo *Die Zeit*-en orrialdeak hartzen ditue-

ESPAINIAKO LIBURUTEGI NAZIONALA



IZUA 1937an faxistek bonbardaketak areagotu zituzten Bizkaiko fronteant izua zabaltzeko eta herritar xeheak izan ziren Alemaniako eta Italiako abizioaren biktima nagusienak. Irudian, Dima inguruan ihesean.



KRYSTIAN MAJ / POLONIAKO GOBERNUA



IREKIA

LEOPARD tankeak Ukrainara bidaltzen lehenengotakoa Poloniako Gobernuak izan da (ezkerreko irudian), baina beste herrialde askok gauza bera egin dute edo egingo dute, tanke mota hori ekoizten duen Alemaniak baimena eman ondoren. Eskuineko irudian Espainiako Presidentetzarako ministro Felix Bolaños Gernikako biktimen aldeko lore eskaintza ekitaldian.

nak, sobietar eremuari edo ekialdeko Alemaniari buruzko artikuluak irakurtzean aurre egin beharko diola benetakoa propaganda nazi bati: “Gerra Hotzak Alemaniako Errepublika Federalari baimendu zion oroimen historikoa galtzea”, ondorioztatu du kazetariak. “Horrela, mendebaldeko Alemaniak bere iraganari eta nazien krimenei kritikoki aurre egiteko gogo eskasa, azkenean bilakatu zen Ekialdearen eta Mendebaldearen arteko gerra propagandaren instrumentu bat”.

Okerrena da memoria falta horrek bi Alemaniak bateratu zirenean ere iraun zuela, Heyeren esanetan: “Harresiaren ondorengo urteetan, berriz ere eskuin muturreko ideiak eta eguneroko arrazakeria gogor bat azaleratu ziren errepresio kolektiboaren estratu sakonenetatik”.

Mendebaldeko Alemanian gerraostean goi karguetan jarraitu zuten nazien portzentajea oso altua izan zen. Adibidez, Saxonia Beherea bezalako estatuetan ez zen kasik ezer aldatu: juristen %95ak iragan nazia zuen

Eta orain, Leopard tankeak Ukrainara bidaltzeko erabakiak zatiketa itzela sortu du alemaniar gizartean, baita ezkerreko jendeen artean ere –hala kontatu digu Carmela Negretek ere *Ctxt*-en-. Birtartean, Bruselak proposatu du artilleriako armak produzitzeko 500 milioi euro gehiago jartzea, urtean milioi bat jaurtigai egitera iristeko, horiek ere Ukrainara bidali asmoz noski. Stockholmeko Bakearen Ikerketarako Nazioarteko Institutuaren azken txostenak dio Europa mendebaldeko eta erdialdeko herrialdeen aurrekontu militarra Gerra Hotzaren garaiko mailan jarri dela berriz ere.

Beraz, Alemaniaren eta Europaren egungo joera belizista testuinguruan jartzeko, ezin esan oroimen historikoa-ekin dugun zor hori osagai garrantzitsua ez denik... ●



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani 23 · 20004 Donostia

T. 943 420 624

www.zinkunegioptika.com





GONGORAKO ZABORTEGIAREN AURKAKO BORROKAK ARANGUREN IBARRA LOTU ZUEN BETIKO



Aranguren, Irulegiko Eskua agertu den bailara, zortzi herrik osatutako Iruñerriko haran irekia da. 1990eko hamarkadaren hasieran Gongora herrian egin zuten zabortejiaren aurka tinko bildu ziren orduko 1.200 bizilagunak. Borroka hartatik sortu zen haien herriak defendatzeko eta kudeatzeko grina. Eta hala jarraitzen dute egun 13.300 biztanle eta Nafarroako zerbitzu onenetakoak dituen udalerrian. Orkestra zuzendaria Manolo Romero da, hautagaitza independenteko burua eta orain bere zortzigarren legegintzaldirako berriz alkategai aurkeztuko dena.

 REYES ILINTXETA  DANI BLANCO

Zergatik du hainbesteko indarra hautagaitza independenteak Arangurenen?

1989an Mankomunitateak proiektu bat onartu zuen Gongora herrirako, baina herritarrek ikusi zutenean zaborteji huts bat besterik ez zela izanen, izugarri haserretu ziren. Garai hartan 1.200 bizilagun inguru geunden bailaran, harreman handia genuen eta honek elkartasun giro trinkoa sortu zuen. Mugarri bat izan zen. Partekatu genuen Gongorako zabortejiaren aurkako borroka Aranguren ibarra lotu zuen betiko.

Nola aldatu da Aranguren hiru hamarkada hauetan?

Mutiloa, hiriburua, izugarri aldatu da eta jakin du bere potentziala aprobetxatzen. Bailaran 30 urtean pasa gara 13.500 bizilagun izatera, Nafarroako bataz besteko per capita errenta handienetakoa dugu, 30.000 eurotik gorakoa, langabezia-tasa baxuena eta populazio oso gaztea: 2.500 haur eta gazte ditugu 15 urtetik beheiti eta 15 eta 20 urte bitartean beste 1.500. Hemen enpresa txikiak, nekazari eta abeltzainak dira nagusi. Honetaz gain, gure lurretan industria gune bat dugu,

Taxoareko kirol instalazioak eta Nafarroako Unibertsitate Publikoa.

Oso une garrantzitsua izan zen 90eko hamarkada, Nafarroako Gobernuak tokiko administrazioaren lege berria ateratu zuenean. Horrek aukera ematen zien 1.000 biztanle baino gehiago zuten kontzejuei udal konposatuetatik ateratzeko. Berriozar, Antsoain, Zizur, Lekunberri eta beste herri askok bide hori hartu zuten, gure ustez gehiegi pentsatu gabe nola gelditzen ziren udalerrri haietako beste herri txikiagoak. Arangurenen kontrako hausnarketa egin genuen: zabortejiaren



Manolo Romero Pardo

OLIVA DE LA FRONTERA,
BADAJOZ, 1961



Iruñerriko Aranguren Ibarreko alkatea da duela 28 urtetik. 1972an etorri zen Mutiloara aita-ama eta arreba gazteenarekin. Ordurako hiru anaia-arreba nagusiak etorriak ziren Badajozetik lan egitera. 1992an zabaldu zuten Gongorako zaborte-giaren aurka bildu ziren tinko, garai hartako ibarreko biztanle gehienak bezala. Romerok ere parte hartu zuen herri mobilizazio handi hartan, auzokide eta Mutiloako kontzejuko presidente gisa. 1995etik Aranguren ibarreko alkatea da Talde Independentearen izenean, 1987tik zegoen aurreko alkate independenteari lekukoa hartuta.

bataila honetan elkarrekin egon bagara, zergatik ez dugu beste formula bat bilatzen geurea kudeatzeko? Ikuspuntu honetatik abiatuta Mutiloako kontzejua deuseztatu eta Aranguren Ibarreko Udala eratu genuen, Mutiloa hiriburu eta beste zazpi herri txikiak haien nekazari eta abeltzain izaera gordeta. Neurriko hazkundea eta ordenatua egitea zen gure helburua. Lanean hasi ginen herri guztiei azpiegitura egoiak emateko eta etxebizitzekin batera, zerbitzuak ere garatzeko. Gure etekin guztiak beti zerbitzuetan inbertitu izan ditugu eta jendeak hori izugarri baloratzen du. Hau dena auzo-erronka gisa planteatu genuen. Asanbladetan sortu zen funtzionatzeko modu hori eta horrekin jarraitzen dugu.

Gure helburua beti izan da etxebizitzak egitea lehenbizi bertako auzo-laguntzat. Hori dela eta, urte hauetan gure herri hautagaitza hazten joan da etengabe. Batzuek uste zuten populazioa zenbat eta gehiago hazi, orduan eta sostengu txikiagoa izanen genuela, baina kontrakoa gertatu da. Alderdi handiak bailaran agertu zirenetik, jendeak desberdintzen du bere bozka hemen eta parlamentuan. Gure politikak aurrerakoak dira eta bozka ematen digun zentro-eskuinteko jendeak ez digu trabarik jartzen politika horiek egiteko.

Nola hasi zen Irulegiko aztarnategiaren proiektua?

2005-2006. urteetan, oinarritzko zerbitzu guztiak martxan jarrita genituela, bestelako inbertsioak egiten hastea planteatu genuen. Horrela, 2008an Aranzadirekin harremanetan jarri ginen Irulegiko gazteluaren indusketa lanak egiteko eta ordutik 30.000-40.000 euro horretara bideratu ditugu urtero.

Nafarroako Gobernuan hasieran uzkur ibili ziren, baina denborarekin gudan konfiantza hartzen joan dira. Hala ere, udalak 550.000 euro baino gehiago inbertitu ditu, eta gobernutik sos bat ere ez dugu jaso. 2018an gazteluarekin bukatu genuenean Aranzaditik esan ziguten magalean herrixka baten aztarna garrantzitsuak bazirela eta erabaki genuen indusketa horietan ere inbertitzen jarraitzea. Orduan Na-

farroako Gobernuak berotasun gehiago hartu zuen gaia eta 7.000 euro inguru eman zizkiguten. 2021ean eskua agertu zenean danbateko arkeologiko eta linguistikoa erabatekoa izan zen. Zur eta lur gelditu ginen eta harrigarria izan zen azaroaren 14an publiko egin arte zeinen ongi gorde zen informazioa, inori ezer exijitu gabe.

Eskuarekin nola aldatu da orain egoera?


Eskua ardatza da eta jendea ekarriko du Arangurenara, baina gauzak ongi egin behar dira. Hori dela eta guk erakundeei esaten diegu dirua eman nahi badute, ongi, baina ez dezatela zehaztu zertan gastatu behar dugun. Nafarroako Gobernuak 250.000 euro emanen zuela esan zuen, Iruñerriko Mankomunitateak 200.000, Madrildik 300.000 etorriko dira EH Bilduren aurrekontuen zuzenketa bati esker... baina guk esan behar dugu zertan inbertitu hori dena.

Indusketekin jarraitu behar dugu, baina azpiegitura batzuk ere sortu behar ditugu jendeari harrera egoia emateko, hauek nekazarien eta abeltzainen herriak direla ahaztu gabe. Gongorako jauregian harrera gune nagusia jarri nahi dugu bisitariei

Turismoari beldur diogu; bisitariei argi utzi nahi diegu hemen abeltzaintza eta nekazaritza nagusi direla, eta hori errespetatu behar dela"

informazio eta zerbitzu guztiak emateko. Duela zenbait urte Aranzadi Zientzia Elkarteak jauregia hartu zuen bere Nafarroako egoitza han jartzeko asmoz, baina krisiarekin diru ekarpen gutxiago jaso dute-nez, udalak erosi zuen haiekin partekatze asmoarekin. 2,5 milioi euro baino gehiago inbertitu dugu orain arte eta oraindik ez dago bukatuta. Kultura eta ingurumenaren erreferentzia izanen den gune bat egin nahi dugu. Guri turismo hitzak beldur ikaragarria ematen digu. Nahi duguna da balioan jarri Arangurenen duguna, baina hona datozen bisitariei argi utziz hemen abeltzaintza eta nekazaritza nagusi direla eta hori errespetatu behar dela inor zapalduta sentitu ez dadin.

Oso garbi dugu, era berean, aurkikuntza hau zeinen garrantzitsua den euskararentzako. Horregatik Nafarroako Gobernuari esaten diogu ho-



nek hausnarketa sakon bat eragin behar duela eta hurrengo legealdian pentsatu behar dela eremu mistoarekin zer egin, aurkikuntza honek erakusten duelako Iruñerrian hizkuntza aspalditik dagoe-la finkatuta eta ez behin osoko bilkura batean hatzak altxatu zirelako. Nafarroa osoan adostasunaren bidea landu dezala eskatzen diogu gobernuari.

Duela 12 urte D eredua zabaldu zenuten, "eremu ez euskaldunean" egon arren. Zergatik?

Beti oso udal aldarrikatzailea izan gara. D ereduko gela bat zabaldu genuen eskola publikoan eskaera aski zegoelako. Gobernuak onartu zuen, baina exijitu zigun eremuz aldatzeko eskaera oso-ko bilkuran onartu behar genuela. Aho batez onartu zen eta 2010etik eremu horretan gaude. Gaur egun 450 ikasle baino gehiago ditugu D ereduan eta, gainera, ikastetxe bat egin berri dugu, propio eredu honetarako, uste dugulako hizkuntzan murgiltzea ezinbestekoa dela. Nafarroan askok uste dute onena

dela denok toki berean egotea elkarbizitzarako, baina hori oso zaila da defendatzeko. Ikustea besterik ez dago, ingelese ikasi nahi baduzu Irlanda edo Inglaterrara joaten zara eta ez Caparrosoko akademiarik onenera, ezta? Hau, agian, D eredu hutseko azken ikastetxetako bat izanen da, gaur egun politika moldeak ez dozelako bide honetatik.

Itunpeko ikastetxe bat dugu bailaran eta haiekin batera lan egiten dugu zerbitzu onak izan ditzan, baina udal bezala irakaskuntza publikoaren alde egin behar dugu, hezkuntza unibertsalaren bermea eta eskola familien elkargune soziala delako, herria eta bailara egiten laguntzen duelako.

Euskara zerbitzua ere eremu mistora pasa baino lehenago zabaldu zenuten.

Bai, ulertzen dugulako koordinazioa eta euskararen ordenantza egokiak ezinbestekoak direla. Iruñerrian ordenantza asko daude onartuta, baina askotan Administrazio Epaitegiak zapuzten ditu

udalen erabakiak. Zergatik egon behar du epaitegi horrek udal baten gainetik bere plantillaren osaketari dagokionez? Eta zergatik ez dute errekurritzen lehenago, prozesuak amaitu baino lehen? Ematen du azkenera arte esperoan daudela, kalte handiagoa sorrarazteko.

Urtetan euskararen aurkako jarrera eta ekintza gogorrak ere pairatu ditugu. Pirritx eta Porrotxen aurka, adibidez, 1.000 sinadura bildu zituzten. Terrorismo gogorra zegoenean ere, beti elkarriketaren alde egin dugu eta gatazka latzak izan ditugu UPNrekin. Oso une zailak bizi izan arren, gure hautagaitzak lortu du bizirik irautea herritarrengandik oso gertu gaudelako.

Udalerri aberatsa zarete?

Udal honek ez du inoiz mailegurik eskatu eta inoiz ez dugu zorrik izan inoiz ez dugulako gastatu ez genuen dirua. Errenta altua dugu langabeziarik ia ez dagoelako.

Eta hori nola lortzen da?

Neurri batean enpleguari laguntzeko 400.000 euro dugulako urtero gure aurrekontuan. Auto-enplegurako laguntzak ematen ditugu, eta kanpoko enpresa batek Arangurengo langabetu bat kontratatzen duenean, hari ere diru-laguntza ematen diogu.

Zerga asko jasotzen duzue industria gunearengatik?

Udala da garbiketa, argia, konponketak... ordaintzen dituen eta zergen %20a baino ez dugu jasotzen. Nafarroako Gobernuak, aldiz, BEZa eta PFEZa eramaten ditu eta Estatuak Segurantzaz sozialari dagokiona.

Nolakoa da etorkinen populazioa hemen?

Paradoxikoki hemen lan handia egin dugu beti etxebizitza sozialen alde eta gazteei etxe baterako sarbidea errazteko, baina gaur egun gurea oso toki garestia da bizitzeko. Hori dela eta hemen bizi den etorkinen populazioa ez da oso handia. Babes ofizialeko pisuez gain, 80 etxebizitza sozial egin ditugu gobernuarekin elkarlanean. Hona etortzen diren familiei lanerako eta formakuntzarako laguntza berezia ematen die udalak.

Noraino iristen dira udalen eskumenak?

Gai batzuk oso zehaztuta daude, baina



aholkukoop
Fiskala Kontables Laborala

**EKONOMIA SOZIAL
ETA ERALDATZAILEAREN
BIDEAN DOAZENEN
AHOLKULARITZA**

Ametzagaina 17, behea / Donostia
943 005 680 aholku.eus



MARCOS
okindegia

**Benetako
antzinako ogia**

© 943 450 966
Ubarburu pasealekua, 113
Astigarraga (Gipuzkoa)



mitxelena
MEKANIZATUAK



mitxelena
MEKANIZATUAK

Eztiago industrialdea 21, HERNANI 943 55 25 12 - 16
info@talleresmitxelena.eus www.talleresmitxelena.eus



beste asko, aldiz, zuk hartzen ahal dituzun eskumenak dira. Horietan udal bakoitzak jartzen du nahi duen sabaia. Guk, adibidez, oso harreman ona dugu Nafarroako Unibertsitate Publikoarekin, bere garaian irakasleentzako etxebizitzak egin genituelako, eta ordutik elkarlan handia izan dugu. Haiek egin ziguten egun bailara osorako dugun telekomunikazio sare publikoa eta orain lanean ari gara energia komunitateak abian jartzeko.

Hemen udaltzaingorik ez dago...

Batzuek tema handia dute segurtasunarekin. Oso seguru sentitzen dira udaltzain, foruzain eta guardia zibilak gertu izanda, baina nik guardia zibilarekin esperientzia txarrak izan nituen, ez naiz haiekin seguru sentitzen. Zazpi albiente ditugu udaltzainen funtzioak betetzen dituztenak, baina ez dute armarik. Gainera, hemendik gutxira Foruzaingoaren polizia-etxe berria hemen zabalduko da eta Foruzainen presentzia nabarmenagoa izanen dugu inguruotan.

Alkate moduan denbora luze daramazu. Ez zara nekatzen?

Guk lau urtez behin kargu guztiak jartzen ditugu mahai gainean. Talde In-

dependentean gaudenok baditugu gure lanak eta kudeaketan inplikatzeko gara hala egin behar dela uste dugulako. Ez du zerikusik politika profesionalizatua-rekin. Niri politika gustatzen zait eta niretzat ez da sakrifizioa herriaren alde lan egitea. Hemen egonen naiz jendeak nahi duen bitartean.

Zer gertatuko da, zure ustez, hauteskundeetan?

Hamazazpi zinegotzietatik hamai-ka ditugu orain, lau ditu Nava-rra Sumak, eta bana dituzte EH Bilduk eta PSNk. Hori mantentzea zaila izanen da eta ez dakigu zer gertatuko den eskuinaren zatiketarekin. Ematen du EH Bilduk jo duela bere sabaia. Oso militante fidelak dira eta gu haiekin oso ongi moldatzen gara, haiek eginen lituzketen politika

asko egiten ari garelako. Sozialistak ez daude hemen errotuta eta Ahal Dugu, Ezker Batua edo Geroa Bai taldeen ingurukoak ez dira aurkezten herri hautagai-tzari kalterik ez egitearren.

Nafarroako Parlamentuan aldaketa gutxi izanen da, nire ustez. Nafarroan EH Bildu asko igoko da eta gerta daiteke eskuinak alkatetza batzuk galtzea. Iruñerako, adibidez, ongi ikusiko nuke akordio bat: Elma Saiz sozialista urte bat eta Joseba Asiron hiru urtez. asko. ●



Elikadura

Laster izango dira udal hauteskundeak eta hautagaiak herrietarako programak idazten ariko dira. Gehienak eraikuntza eta hirigintza proiektuetaz ariko dira, era tradizionalen.

Gutxiago izango dira inguruko baliabideak erabiltzeaz eta bere kudeaketarako sare komunitarioak egituratzeaz ariko direnak, horiek izango dira, ordea, interesgarrienak.

Pandemiak, klimak eta azken urteotako gertakizunek ikusarazi digute gure helburu eta bizimoldea aldatzeko beharra. Pentsamendu aldaketa hori praktikan jartzeko herriek aukera ugari dute. Hortaz, elikadura mahaigaineratu beharreko gai bat da.

Gure eskualdeko elikadura politikaren azkena izan da Barakaldo eta Ses-taoren artean janaria pakete handietan saltzen duen Costco multinazionala irekitzea. Horrela, aurretik genituen makrosupermerkatuekin batera, gure ingurua izango da Euskal Herrian janari prozesatu gehien kontsumitzen duen eskualdea. Hala ere, hemengo udal bakarrak ere ez du elikadurari buruz ari-rtzeko arlorik.

Badaude, ordea, bazterrean dirauten hainbat errealitate:

Beharrezkoa da
herritarrei ereite teknika
biologikoak erakustea,
baratzegintza balioan
jartzea eta beharrei
eskualdetik kolektiboki
erantzuteko tresnak
sortzea

–Industria-trenbide artean edo erreka zuloan, hamarkadak daramatzate, plastikozko bidoi eta txapazko txabolekin, kanpotik gurera bizitzera etorritakoek sortu zituzten baratzeek. Elikaduraren garrantzia transmititzeko beharrezkoa da jasotzea kanpoko nekazari herrietatik etorri ziren pertsonen lurrarekiko lotura eta aurretik hemen bizi zirena.

–Azken urteotan berriz baratzeen transmisioa izan da, lurrarekin lotu-



KIMETZ ARANA BUTROE
BARATZEZAINA

rarik ez duen jende gazteagoari. Beharrezkoa da herritarrei ereite teknika biologikoak erakustea, baratzegintza balioan jartzea eta beharrei (hazi, landare, tresna, jakituria) kolektiboki eskualdetik erantzun ahal izateko tresnak sortzea.

–Eskola batzuetan baratzeak jarri dira. Beharrezkoa da haien behar pedagogikoak asetzea, baratze proiektua eskolan osoki garatzea eta baratzeak dituzten eskolak saretzea.

–Eskola jantokietan, gurasoen artean gero eta zabalagoa da kimikarik gabeko hurbileko janari osasuntsua eskaintzeko nahia. Beharrezkoa da hori gauzatzeko bideak aztertu eta baliabideak jartzea.

2020ko ikerketa batek dio elikadura osasuntsuak osasungintzako gastuaren %20 aurreztuko lukeela. Europako hirietan elikagaiak bertan nola sortu aztertzen ari dira etorkizuneko kolapsoei aurre egiteko. Hemen oraindik bada lurrik, eta udalek badute aipaturiko il-doetan ekinbideak sortzeko gaitasuna. Bada garaia, beraz, elikaduraren gaiari heltzeko eta bide berriak zabaltzeko. Edo gaiari ezikusiarrena egin eta beste lau urtez multinazionalen eskuetan utziko dugu gure elikadura? ●

Euskaldunon udaberri hau



KARMELO LANDA
HISTORIALARIA

Eguna ekialdetik esnatzen ohi da. Urtaroa, aldiz, mendebaldean hasi da gurean aurten, Bilbon ernaldu baitzen *Loraldia*, martxoaren bere erdira heldu aurretik, gainera. Udaberri goiztiarra, lore eta fruitu ematen dirauena. Bizkaiko hiriburuan sendo euskal kultura martxoaren 9tik 31ra bitartean, 150 sortzaile, 14 eszenatokitik.

Inoizko goizen loratu ziren aurten zuri eta eder Martzana kaian gereziondoak, eta hori seinale baikortzat hartu eta erabaki nuen orduan Euskal Herri osoan zehar horren arrastoa aritzea. Mendebaldetik salto lasterrean ekira, bedatsean bazterrak berdatu ziren Barkoxen, bertan Xiberoko maskarada eman zenean Aberri Egun berean. Handik ez urruti, Gotaine-Irabarnen Xiru festibala, sasoi horretan urtero legez, eta aurtengoan osagarri esperimentalak agertuz, tartean *Elkano* nano pastoral estonagarria.

Ez zen pastoral izan, baina bai drama hunkigarria Gernikako herritarrek bertako bonbardaketaren urteurrenerako antzeztu zutena Foru plazan. Kandelen manifestazio jendetsua ondoren, amaierako predikua, guztia euskaraz, eta amaitzeko eguneratze interesgarria; lehen aldiz, nik dakidala, modu horretan eta solemnitaterik, *Gernikako arbola* abestu genuen partaide guztiok, berau Euskal Herriaren ereserki bihurtzeko proposamenari baietza era horretan emanda, non eta Gernikan bertan.

Euskal Herrian eta euskaraz bizitzearen sentipen erabatekoa. Udaberriaren erdian, eta uda betea hortxe eskuragarri dugun froga

Bilbora bueltan, apirilaren 22ak gogoetatzeko gonbidapen bikoitz mamitsua ekarri zigun: batetik, *Hezkuntza eta Hizkuntza* jardunean elkartu ginelako gai horien inguruan adituak direnen azalpenak partekatuz, ELA sindikatuaren eskutik. Bestetik, *Berria* egunkariaren orrialdeetan agertu zela *Hizkuntza-lurraldetasunari buruzko proposamena*, Naziogintza elkarteak mamitua.

Lehenak, jardunaldiak, ekarpen benetan aberats eta ezagutu beharrekoak eskaini zizkigun, hezkuntza eta hizkuntza lotura hori, bai gurean bai Katalunian, gizarte eztabaidaren muinean dagoenean. Miren Zubizarreta Gizalanelatik, Izaskun Rekalde Pantailak Euskaraz-etik, Iñaki Lurrebaso soziologoa, Jordi Martí Monllau hizkuntzalari eta filosofo katalana eta Juan Carlos Moreno

Cabrera hizkuntzalaritza katedraduna, guztiak euskaraz edota katalanez aritu zirenak, gako argiak eskaintzen. Non irabazten du eta non galdu euskarak? Bidegurutzean bagaude euskararen eta katalanaren kasuetan, zein bidetatik hurbilduko gara heriotzerantz eta beste zeinetatik, aldiz, bizitza betera? Zergatik gabiltza ahul euskaldunok ezagutzen eta erabileran, baina sendo, aldiz, motibazioan eta euskaltzaleasunean?

Egun berean ezagutu zen *Hizkuntza-lurraldetasunari buruzko proposamena*, Naziogintzak landuak, dakar, hain zuzen ere, bidegurutze horretatik onbidan abiatzeko gida praktikoa zehaztua. Soziolinguistika zientifikoaren azterketei jarraituz, euskara hutsez biziko diren guneak bermatu, jadanik euskal hiztunak gehiengoak garen eremuetan hasita. Euskararen lurraldetasuna garatu, eskubide linguistiko kolektiboak kontuan hartuta. Ibilbide luzea izango duen proposamena eta dagoeneko aldeko iritzia jasotzen ari dena.

Apirileko azken egunean, Baigorri, Nafarroaren Egunean. Euskal Herrian eta euskaraz bizitzearen sentipen erabatekoa. Udaberriaren erdian, eta uda betea hortxe eskuragarri dugun froga. Egun betearen emozio zirraragarrien artean, Barakaldetik bertara joandako familia osoarekin elkartu, aitita-ama bikotea, horien alaba biak eta horietako baten bi semeak, erdi itzarri erdi lo, kanpinean izandako gau ezohikoaren ondorioz.

Atzar hadi, euskalduna. ●

Giltzak etxean jarraitzen du



MALORES ETXEBERRIA



ANTTON OLARIAGA

Urte asko dira institutuko irakasle batek aipatu zidala euskararen jarioak ez zuela ikasleen ebaluazio irizpideetan pisurik. Eredu nahi-ko erdaldundu batean baserri giroko ikasle batek euskaraz hitz egiteko zuen aberastasuna eta erraztasuna baloratu nahian zebilen irakasle hura eta ez zuen, sobra ere, laukitxorik horretarako. Norberaren aberastasunaz gain, gainerako ikasleengan zuen eragina ere baloragarria iruditzen zitzaion irakasle hari, besteentzat eredu eta akuilu baitzen euskaraz ondo eta erraz hitz egiten zuen ikasle hura.

Erraztasuna. Hizkuntza bat erabiltzeko gakoa erraztasuna dela dio Iñaki Lurrebaso Biteri Soziologo eta EHUKo irakasleak bere doktore tesian. Aldizkari honen martxoko Larrun hilabete-kari monografikoan argitaratu da haren laburpena Lurrebasori egindako elkar-rrizketa mamitsu batean eta, beste datu askoren artean, honako hau eman du: Euskal Herrian %7,4 dira euskaraz beste hizkuntza batean baino errazago moldatzen direnak. Guztira, 195.631 hiztun. Beste %8,4 (222.000 hiztun) berdintsu moldatzen dira euskaraz eta beste hizkuntzaren batean; eta gainerako %84,2 (2.230.038 hiztun), hobeto moldatzen dira beste hizkuntzaren batean euska-

raz baino. Kontuan hartu behar da 16 urtetik gorako hiztunez ari dela.

Lurrebasoren tesi nagusia da hizkuntza erabili, erraztasuna duenak erabiltzen duela, gaitasun nahikoa duenak, eta Euskal Herrian horiek oso gutxi izanda, ez dela posible erabilera gaur egun dena baino handiagoa izatea; areago oraindik, daukagun erabilera (%15) espero zitekeena baino dezentez handiagoa dela frogatzen du, eta Txillardegiaren teoria beste ertz batetik sendotu.

Gaitasunean asko aurreratu dugula darabilgu hitzetik hortzera azken urteotan; hiztun berri asko irabazi dugula, baina hori ez dela erabilera bihurtzen. Lurrebasok, berriz, fokua gaitasunaren ahuldadean jarri digu, eta gaitasuna erabilera bihurtuko bada, hura hobetu behar dugula azpimarratu du. Jario eta aberastasun handiagoko hiztunak behar ditugula dio, eta horretan jarri behar dela indarra.

Egia da, bestalde, gaitasuna hobetzeko modurik onena, eta bakarra, erabiltzea dela, erabili ezean ez baita hizkuntza aberasten. Baina fokua gaitasunaren ahulezian jartzea eta azken denboretan bolo-bolo dabiltzan irabaziak erlatibizatzea oso interesgarria iruditu zait, aurrea begirako hizkuntza politiketan lehen-tasunak hobeto planteatu ahal izateko.

Onartzeaz dagoen Hezkuntza Legeak planteatzen du DBH amaitutakoan ikasleek gutxienez B2 maila lortzea. Ikusi egin beharko da zer-nolako hizkuntza proiektuak bideratzen diren eskoletan, ikasleek jario nahikoarekin amaitu dezaten derrigorrezko eskolaldia. Baina berriro ere erraztasunaren laukitxoa faltako dela iruditzen zait.

Erraztasuna, nolanahi ere, nagusiki etxeak ematen duela ikusi izan dugu, eta, datu zehatzik ez dudan arren, seguru-rik euskaraz errazago aritzen den %7 horren gehien-gehiengoa euskara etxetik jaso duena izango da. Etxe "euskaldunak" gaitasun eta praktika alde-tik aniztasun handikoak dira gaur egun, eta bada joera bat haurrekin euskaraz jardutekoa, baina, agian, ez guraso edo helduen artean euskarari trinkotasunez eustekoa. Horrelakoetan, haurrak handit-zen doazen neurrian, etxeko hizkun-tza gero eta erdaldunagoa bihurtzeko arriskua handia da, eta, kasik konturatu gabe, halaxe gertatzen da askotan.

Etxea bezalako espazio pribatu eta intimo batean euskaraz jardutea zenbait-tan neketsua gerta daiteke, guraso eta kide helduen euskara gaitasuna ez dela-ko erabatekoa edo urteetako ohiturak erdarara garamatzalako, baina esfor-tzuak merezi duela esango nuke. ●



SUKAR HORIA

Dirua landatzea

Basogintza ereduen arteko talka irudikatzen duten bi albiste ezagutu ditugu aste honetan. Alde batetik, ezezagun batzuek basogintza jasangarriaren alde lan egiten duen Errez kooperatibaren autoari eraso egin diote Aramaion. Bestetik, Hernani eta Arano artean eukalipto-landaketa industrial bat suntsitu dute hainbat ekintzailek, landaketa horiek eragiten duten kalte ekologikoa salatzeke.

Ekintzaileek jopuntuan jarri duten landareak ederto islatzen ditu gaur egun nagusi den basogintza-eredu kapitalistaren logika eta funtzionamendua.

Eukalipto XVIII. mendearen amaieran ekarri zen Australiatik Europara, eta gurean 80eko hamarkadan hasi zen garrantzia hartzen; 40 urtetan bere presentzia laukoiztu da. Zuhaitz horiek oso arin hazten dira; 10-15 urtera mozteko aukera dagoenez, epe laburrean mozkin oparoak lortzeko aukera ematen du.

Hazkunde bizkor horren txanponaren beste aldea inguruan eragiten duen kalte ekologikoa da. Izan ere, eukaliptoak lurra pobretzen du, hazkuntzarako nutriente eta ur kantitate handiak xurgatzen baititu. Gainera, inguruko bioaniztasuna murriztu eta suteak hedatzea errazten du. Hori gutxi balitz bezala, eukaliptoak (eta pinuak) mozteko erabiltzen den matarrasa sistemak pobretutako lurzoruen higadura sustatu eta ibaetan eragin zuzena du.

Baina, nortzuek babesten dute eukaliptoak, eta, orokorrean, baso-eredu kapitalista? Bada, eredu horri esker poltsikoak betetzen dituztenek, hau da, basogintza sektoreak. Sektore hori ondo antolatuta dago EAEn, eta bere interesak defendatzen dituen presio-talde bat ere badute: BaskEgur.

BaskEgurren barruan egurraren zenbait arlotako enpresari elkarteak daude: lur-jabeak, papertegiak, egur transformatuaren enpresak... eta BaskEgurrek lan politiko, ideologiko eta propagandistikoa egiten du haien interesak defendatzeko.

Euren kanpainetan beti azpimarratzen dute lur-jabe txikiek basogintza sektorean duten garrantzia. Baina apur bat ikertuz gero, erraz aurki daitezke barnean dauden multinazional nagusiak: Iberpapel eta Smurfit Kappa (163,93 eta 1.702 milioi euroko irabaziak izan zituzten 2021ean, hurrenez hurren).

Munduan barrena landaketak dituzten enpresa horiei bost axola die epe ertainean zer kalte eragiten duten, eurentzat dirua biderkatzeko tresnak baino ez baitira: diru-landaketak. Gainontzekook, ordea, landaketa horien guztien ondorioak sufrituko ditugu.

Horregatik, dirua landatzeari utzi eta gure beharrak asetu eta biodibertsitatea zainduko duen baso-eredu baten alde egin beharko genuke. ●

Urrun dago... Sudan



ARANTZA GUTIERREZ
EHU-KO IRAKASLEA

Sudango gerrak milaka errefuxiatu eragin ditu; horien bila ez da inor joango, Europak ez du artatzeko dispositibo berezirik abiatuko, ezta korridore segururik zabalduko ere. Gerra Afrikan gertatzen ari da, eta NBERen arabera sortu dituen 800.000 errefuxiatuak inguruko herrietan jaso dira, eta ondorioz, horietan dagoen larrialdi-egoera areagotu da. Sudandik eta hedabideetan dagoeneko ahaztuta dauden beste gatazketatik ihes egiten dutenei gehitu behar zaizkie gerra horiek eragiten dituzten ekonomia-krisietatik eta ingurune-larrialdeetatik ihes egiten dutenak. Gehie-

nak bertan geratuko dira, etorkizuneko itxaropenik gabe. Batzuk Europara heltzen saiatuko dira, edo bidean hil. Ohitu gara. Beren begirada beltzek ez gaituzte hunkitzen pantaila batetik, ukrainar argienek beste, behintzat.

Orain, udal, aldundi eta foru gobernu-ko hauteskundeak ditugu. Migrazio-politikak estatuen eskumenak direla argudiatuko dute, ezer egiten ez delako aitzakia hipokrita gisa. Izango dira segurtasunarekin lotzera ausartuko direnak, neurri hertsatzaileak saltzeko. Gehienek, berriz, ez dute ikusiko, total, ezin dute bozkarik eman... Eta Afrika oso urruti dago. ●

Erabakia



**KOLDO ALDALUR
HIRIGOIEN**
KAZETARIA

Hipotekak gora, sindikatuak muturka, bi nerabe bortxatu dituzte, hamalau migratzaile itota, bi palestinar tiroka hilik Zisjordanian, Etiopiako egoera lazgarria... eta, besteak beste, nola ez, Ukrainan antolatu duten gerra amaigabea. Aste hau ere gogorra izan da albistegietan.

Nahi ordu ez, baina iritsi da larunbat arratsaldea: sofán luze-luze jarri eta pentsatu beharrik gabe egoteko tartea. Ez dakit ziur zer den ataraxia, baina holako zerbait behar du.

Iratzargailuaren kargu hartzearekin esnatzeko garaia bukatzen ari zaidan honetan, horixe da aldarrikatu nahi dudana: pentsatu beharrik gabe bizitzea asteen ordu batzuk bederen! Arnasa hartzea eskubidea da.

Eta, hain zuzen ere, gure ordeztatzeko sortutako inkomunikazio leihoan, Sydney Pollack-ek 2005ean zuzendu zuen *The Interpreter* (Itzultzailea) pelikula, pare-parean.

Bertan, Nazio Batuen Erakundearen itzultzaile lanetan aritzen den Silvia Broome (Nicole Kidman) eta Tobin Keller (Sean Penn) detektibea elkarri hainbat kontu argitu ezinean dabilta.

Halako batean, itzultzaileak halako

Ez al du merezi
justiziaren ibaian
itotzea berak sortutako
gerrari balizko bake
akordiorako ahalegin
oro boikotatzen
aritzen denak?

zerbait bota dio adi-adi begira duen detektibeari: “Bada Afrikan tribu bat, non justizia era nahiko berezian ezartzen duten. Norbaitek norbait hiltzen badu, eta herri-epaiketan ustezko hiltzailea errudun jotzen badute, hildakoaren senitartekoei aukera dute hiltzailearen bizitzaren gainean erabakitzeke.

Orduan, herritarrek erruduna ibaira botatzen dute eskuak eta hankak lotuta dituela, eta hildakoaren senitartekoei uretatik bizirik atera edo bertan itotzen utzi erabakitzeke eskubidea dute. Eta badakizu? Tribu horretan uste dute hiltzailea uretatik bizirik ateratzea erabakitzen dutenek aurrerantzean bizitza

zoriontsuagoa izango dutela gorroto hutsa zena baretu egin zaielako eta berriro bakea iritsi delako familiako kideen arimetara”.

Akabo pentsatu beharrik gabeko nire larunbat arratsaldea! Berririo galderak borborka buruan, erasoka. Bizirik mantendu ala itotzen utzi erabakitzeke unean, maila berean jarri beharrekoak al dira, esate baterako, gerraren beroan, bizitzari eusteagatik, tiro egiten duena, eta gerra hori diseinatu duena bere interes ekonomikoak, geostrategikoak edo dena delakoak aurrera eraman ahal izateko?

Larri dabilenak tiro egiten duenean, ez du hausnarketarako denboraren laguntzarik. Aitzitik, gerra noiz eta non izango den deliberatu duenak denbora luzea izan du hildakoak nortzuk izango diren erabakitzeke.

Eta, ez al du merezi justiziaren ibaian itotzea berak sortutako gerrari balizko bake akordiorako ahalegin oro boikotatzen aritzen denak?

Suposatzen dut arrazoi etikoek, moralak eta gainontzekoek bultzaturik, korrika joan beharko nukeela itotzen hasitakoa uretatik ateratzera, baina gaur ez pentsatzea erabaki dut. ●



Hezkuntzan LGTBIQfobiarik ez



MAIATZAREN 28KO UDAL ETA
FORU HAUTESKUNDEAK

Gobernagarritasun ildo nagusiak errepikatzeko joera dago

Nafarroako Gobernua, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako batzar nagusiak, eta Hego Euskal Herriko udalak hautatuko dira maiatzaren 28an. Pandemia izan da badoan legealdiaren ezaugarri nagusia, eta trantsizio energetikoa izango da datorrenaren ardatza. Bada jada. Krisi hotsak ere hor dira, ate joka; edo hobeto esanda, askok dio 2008ko krisia geratzeko etorri zela. Erakunde bakoitzak beretik, denek egin beharko diote aurre antzematen den egoera korapilatsuari.





NAFARROA

Gobernuan egungo egoera errepikatzeko aukera handia dago

Ezin iragarlearena egin, baina denak adierazten du Nafarroako Legebiltzarrean bloke nagusien emaitzak antzerakoak izango direla datorren maiatzaren 28an, eta, beraz, gobernuari begira, oraingoaren antzeko egoera errepika daitekeela. Bestelakoa da Iruñeko Udalaren itxura, non emaitzek hainbat ate ireki ditzaketen.

 XABIER LETONA

Azken legealdi honetan, EH Bilduk lehenbizikoz sostengatu du PSN-ren gobernu bat. María Chivite lehendakari, PSNk, Geroa Baik eta Ahal Duguk osatu dute Nafarroako Gobernua, hurrenez hurren 8, 4 eta kontseilari batekin. Izquierda-Ezkerraren ordezkari bakarrak gobernuaren alde egin zuen inbestiduran, baina ez zen hartan sartu.

Gobernuak bere alderdien 22 parlamentarien sostengua izan badu ere -50etik-, ezinbestekoa izan du EH Bilduren 7 eserlekuen babesa, bai inbestidurarako, bai gobernuaren aurrekontuak aurrera ateratzeko. Eta datorren legealdian ere hala izan daitekeela dirudi. ETaren garaian legebiltzarreko bazterrean utzi zutena, gobernarritasunaren giltza bihurtu da egun. Chivitek argi utzi du: emaitzek ematen badute oraingoaren gisako gobernua nahiko luke, eta EH Bilduk ere formula egokitzat jo du, bere aburuz horrek jarraitzen duelako UPN bazterreratzen eta higatzen.

Inkesta gehienera araber, Nafarroako Legebiltzarrean UPNk irabaziko du 12-15 parlamentariarekin, baina eskuinak ez du nahiko boto lortuko bakarrik gobernatzeko. PSN izango bide da bigarren 10-11rekin, eta lehia handia legoke Ge-

roa Bai (9) eta EH Bilduren artean (8). PPrena ez dago batere garbi, 3-6 eserleku lortuko bailituzke. Nafarroa Zurekin koalizioak (Ahal Dugu, Ezker Batua, Batzarre eta berdeak) 3 bat izango omen ditu eta Vox legebiltzarrerara sartuko litzateke 1-2 eserlekurekin.

Javier Esparza (UPN), María Chivite (PSN), Uxue Barkos (Geroa Bai), Laura Aznal (EH Bildu), Javier García (PP), Begoña Alfaro (Zurekin Nafarroa) eta Maite Nosti (Vox) aurkeztuko dira Nafarroako Gobernuko lehendakartzara. Horietatik bik dute batez ere lehendakari izateko aukera, Javier Esparzak eta María Chivitek, nahiz eta ezin den baztertu Uxue Barkos ere, aurreko legealdian bera izan baitzen lehendakari. Inkestetan denetik egon ohi da, baina orain arte egin diren gehienetan, ez da jausi handirik iragaritzen bloke nagusietan eta haien barne oreketan.

Berez, Nafarroako Legebiltzarrerako hauteskundeak UPNk irabaziko ditu aise, azken lau hamarkadetan gehienetan egin duen gisan, baina historiako bere emaitza txarrenetakoa eskura dezake, aurreko legealdian Nafarroako eskuina batu zuen Navarra Suma orain zakkarrontzira bota duelako: "Boto gehiago

lortuko ditugu banatuta elkartuta baino", esan zuen Esparzak.

UPNren erabakiak kirioak dantzan jarri zituen lehendik ere Adanero-Sayas haize zakarrak gogor astintzen zuen eskuinean. Esparzak legealdi osoa pasatu du esaten PSN EH Bilduren eskuetan dagoela, eta hara non, hauteskunde aurrekanpainan berak irentsi behar izan du gisa bereko gozokia PPko koordinatzaile Elias Bendodoren ahotik: "PSOEn eskuetan bakarrik ez, UPN EH Bilduren eskuetan dago". Labanak arin ari dira dantzan airean, baina inork ez du zailantzarik hauteskunde biharamunean laster helduko direla adostasunera, 25 parlamentari eskuratzen badituzte. Baina, haien kalterako, inkesta bakarrak ere ez du halako aukerarik ematen, ezta Voxen balizko 1-2 eserlekuekin ere. Azken urteetan ohikoa da UPNren eta PPren arteko batu-banatu joko hori, eta horietako azkenean, 2011n, PPk 4 eserleku bereganatu zituen ondoren zulo beltz batek irentsi zuen Javier Cerverarekin. UPN-PP lehian Nafarroan beti gailendu da samur UPN, baina oraingoan arrakala asko handitu da alderdiaren barruan. Ikusiko dugu haien esparru soziologikoan berdin gertatzen den.



María Chivite lehendakaria ezkerrean, eta haren eskuinean Elma Saiz, Iruñeko Udalera PNSren alkategaia, eta EH Bilduko parlamentari Bakartxo Ruiz eta Adolfo Araiz aurrekontuen negoziazioan. (Argazkia: Idoia Zabaleta / FOKU)

VOLKSWAGEN ETA BESTE

Pandemia izan bada agur dioskun legealdiaren ezaugarri nagusia, klima aldaketa eta horrek ekonomia-aren garapenean izango duen eragina gero eta izarragoa izango da aurrera begira. Datu askok adierazten dute, aukera handiak daudela egoera ekonomikoa eta soziala asko hondatzeko, eta gero eta ahots gehiagok diote garapena jadanik ezin dela hazkunde klabeen planteatu. Baina, egia esan, eremu instituzionalean inork gutxi astintzen du desazkundearen bandera. Nafarroako Gobernuak, gainerako gehienak bezala, orain arte bederen ihes egin dio balizko egoera gogor horri aurrez aurre begiratzeari, eta ohiko politika desarrollistek gidatzen dute bere jarduna.

Automozioa eta zehazki Volkswagen hasi dira nozitzen zakarraldiaren ondorioak, eta auto salmentaren beherakadari so eginda, gaitza dirudi esatea etorkizuna iragana bezain oparoa izango denik. Ateratzen den gobernu berriak, besteak beste, gai arantzatsu horri heldu beharko dio. Chivitek Next Generation funtsak izan ditu lagungarri ekonomia akuilatzeko, baina hori Europar Batasunaren txanponaren alde bat da, bestea iragan hamarraldian ondo ezagutu genuen austeritatearena da, eta hori ere astinduko ei du EBK berandu baino lehen.

IRUÑEKO UDALA

Ibarrola edo Asiron alkate, berriz PSNren esku

Joseba Asironek gidatu zuen EH Bilduk, Geroa Baik eta Aranzadik Iruñeko Udalera ekarri zuten iraultza txikia. Enrique Maya (Navarra Suma) gehiengo osotik eserleku batera gelditu zen 2019ko maiatzean (13 zinegotzi). Baina egiazki, Mayaren alternatiba PSNk zapuztu zuen, Maite Esporrrinen "agur Asiron" entzutetsu harekin.

Joera nagusia inkestetan honakoa da: UPN (9-10), EH Bildu (7-8), PSN (4-5), Geroa Bai (2-3), Nafarroa Zurekin (1-2) eta PP (1-2). PSNk izango du berriz gobernarritasunaren giltza, eta dagoeneko iragarri du sozialistek euren burua bozkatuko dutela. Egoera horretan, Joseba Asironek ia ezinezkoa luke ostera ere errepikatzea.

Bai, 2015ean gertatu zen, baina Ahal Duguren eta haren orbitaren indarraldi betean, Aranzadik 3 zinegotzi lortu zituen eta Ezker Batuak 1. Errepika daiteke berriz halakorik, beste zinegotzi banaketa batekin izanik ere? Ez da erraz irudikatzen. Batera etorrita ere, ezker esparru hori ez dator orduko hauspoarekin. Geroa Baik 5 eta EH Bilduk beste 5 lortu zituzten 2015ean, baina 2019an emaitza hori 5-7 bihurtu zen ezkerreko koalizioaren alde. Asiron boladak gogor jo zuen eta Geroa Bai 5etik 3ra eramane zuen. Ez dirudi Koldo Martinezek egoera hori irauliko duenik.

Eta gero daude eskuinaren emaitzak: 2010ean inoizko txarrenak lortu zituen, eta horrek ere erraztu zuen PSNrik gabeko

udal gobernu. Baina gainerako guztietan, eskuin espainiarra (UPN-PP-CDN...) beti 11 eta 16 zinegotzi artean ibili izan da Iruñeko Udalean, eta 1979tik gaurdaino lortutako batez besteko zinegotzi kopurua 13 da. Hau da, estatistikoki, ia beti gehiengo osotik boto batera.

Dena den, politika aldakorra da eta PSNk ere mugimenduak egin ditu Iruñeko Udalean, Maite Esporrrin kendu eta Elma Saiz alkategaitzara ekarrita. Oraingoz zaila dirudi PSN EH Bildu alkatetzan sostengatzen ikustea, besteak beste, badakielako EH Bilduk bai ala bai emango diola gobernu, UPNk hartu ez dezan; eta batez ere, Sarasate pasealekuak baino Ferrazek agintzen duelako PSN-n. Eskuina oso indartsua da Nafarroan, ezin uka, baina gehienetan gobernatu du PSNk nahi izan duelako.

ETAren arrok erraztu zuen hori, nekez irudika baitzitekeen ETA PSOeko zinegotziak hiltzen eta PSEko edo PSNko zinegotziak HBrekin edo Batasunarekin gobernatzen. Baina aldatu da egoera eta politikan atek ireki-itxi ari dira sarri. Aldizkari honetan bertan, Aranguren bailarako Manolo Romero alkate independenteak bere proposamena luzatzen du UPN bazterreratzeko: PSNk urtebete egin dezala alkatetzan eta EH Bilduk hiru, beti ere Asiron aurretik geldituz gero, jakina. Akordiorik ezean, UPNko Cristina Ibarrola izango da Iruñeko alkate berria.

ARABA

Bertso aske bat

Bertso askea errimarik gabekoari esaten zaio: beste puntuek errimatzen dute eta zu hoshkidetasunik gabe utzi zaituzte; bere kasa dabilen pertsonari deritzo. Bada, Arabako hauteskundearen panorama zein den azaltzeko, egokia da irudikatzea Araba politikoki bertso libre gisa. Izan ere, hauteskunderik hauteskunde aldaketa gehien egon den herrialdea da Araba.

 RUBEN SÁNCHEZ BAKAIKOA

Aldaketen zergatiak ulertzeko, honako bi faktore hauek azpimarraztekoak dira. Lehenik, kameleoiak: leku guztietan bezala, badira beti boto bera ematen dutenak (inoiz botorik ematen ez dutenak barne), baina Araban, itxuraz badira kameleoi asko, eta ez dago erraz igartzerik zein txaketarekin dabilzan. Bigarrenik, Gasteizentzismoa: Arabako populazioaren %75 Gasteizen bizi da, eta 5.000 biztanletik gorako beste hiru udalerri besterik ez daude.

LAUREN ARTEKO LEHIA

Arabako Batzar Nagusietarako hauteskundearen emaitza historikoei begiratu gero, EAJ da gehienetan irabazi duen alderdia: zazpi aldiz, ondotik PPk hirutan eta EAK behin. Gasteizen are anitzagoa da panorama: EAJk bost aldiz irabazi du, PPk lautan, eta EAK eta PSEk behin. Arabar arrarotasun horretan –eta frikismoarekin muga–, Unidad Alavesa alderdiak behin bigarren egin zuen Gasteizen eta Araban. EAetik banantzeko eskatzen zuten haiek; non daude orain kameleoi endemiko haiek?

Beste berezitasun bat da ezker abertzalearen gorakada azken hamarkadan; herrialde honetan hazi da gehien. 2011ko bozetan, EH Bilduk 11 eserleku lortu zituen Batzar Nagusietan eta 6 zinegotzi Gasteizen. Emaitzak errepikatu zituen 2015ean eta 2019an (urte

horretan, Batzar Nagusietan, eserleku bat gehiago ere lortu zuen: 12). Ilegalizazioen aurretik, Herri Batasunaren eta Euskal Herritarrok-en emaitzarik onenak puskaz apalagoak izan ziren: Batzar Nagusietan 8 eserleku 1987an, eta Gasteizen 3 zinegotzi (1987, 1991 eta 1999an). Bestalde, Podemosek 8 eserleku lortu zituen Batzar Nagusietan 2015ean, lehen aldiz aurkeztu zirenean (Gasteizen 3 zinegotzi). 2019ko bozetan 4 eskuratu zituen, eta inkestek 3 ematen dizkiote oraingoetan.

GASTEIZ

Gaur-gaurkoz, EAJ-PSE-PP hirukoan PP ageri da ahulen. Javier Marotok lortu zituen emaitza ikusgarriak 2015ean (9 zinegotzi), arrazakeriaren karta aterata. Baina karta horrek berak agerrarazi zuen “Gora Gasteiz” mugimendua, Marotok alkatetzan ez jarraitzea eragin zuena, eta geroztik PP behera ari da Gasteizen eta Araban. Inkesta gehienek 5 zinegotzi ematen dizkiote.

PSEk 5-6 zinegotzi izan beharko lituzke Gasteizen. Udal gobernua partekatu du EAJrekin, baina ez dirudi horrek bereziki higitu duenik. PSEk Madrilgo egoeraren uhina jaso ohi du: PSOE eta Pedro Sánchez indartsu badaude, indartsu, bestela, ahul. Une honetan, ez hotz ez bero.

EAJk aldatu du alkatetza, Gorka Urtaranek omen zuen higadura zela eta.

Baina Urtaran ezaguna da, Gasteizen zortzi urtez alkate izan eta gero, Beatriz Artolazabal ez bezala. Gainera, azken aldian EAJ ez da batasun gehiegirik erakusten ari, are, Gasteiz vs Jaurilaritza ere transmititu da, tranbia, AHT edo etxebizitza politiketan. Inkesta gehienek faborritzat jotzen dute, hala ere.

EH Bilduri dagokionez, batzuetan “Larrion efektua” aipatu da. Miren Larrionek inoizko emaitzarik onenak lortu zituen Gasteizen ezker abertzalearentzat, 2019an: 24.529 boto, 6 zinegotzi. Baina aurreko hauteskundeetan baino 1.100 boto gehiago izan ziren, “soilik”. Aurten, 6-7 zinegotzi, inkesta gehienek arabera.

Alegia, egoera zera da: EAJ, PP eta PSEren artean badago boto-poltsa komun bat, eta, bestalde, ez dago motibo handirik pentsatzeko EH Bilduk azken hamarkadako emaitzei berriz eutsiko ez dienik. Beste hiru hautagaietan baten bat ez bada argi nagusitzen –inkesta gehienek arabera, EAJ gailenduko da–, EH Bilduk irabaz lezake.

KUADRILLAKA

Arabarrak ez direnentzako bitxikeria eta ohar gisa, esan behar da XVI. mendetik Araba kuadrillak antolatzen dela (ez bakarrik poteorako). Lurralde osoa asko baldintzatzen du Gasteiz: Batzar Nagusietarako 38 eserleku

ematen ditu; Aiaraldeak 5 eta gainerako herrialde osoak, "Lur Jareak" deritzanak, 7.

Aiaraldeko kuadrillan, Laudio (Arabako bigarren udalerri populatuena) EAJ eta EH Bilduren artean ibili da dantzaz; inkestek oso gertu jartzen dituzte bata eta bestea. Amurrion ere estu egon daitezke gauzak (EAJ izan ohi da nagusi), Artziniegan (azkenengotan nabarmen samar EH Bildu nagusitu da) eta Aiaraldeko herri txikietan bezalaxe.

LUR JAREAK

Arabako Lautadari dagokionez, aurreko hauteskundeetan Agurainen EAJ nagusitu zitzaion EH Bilduri, 17 botoren aldeaz. Gainerako herrietan ere hortxe dute lehia. Oraingo alkatetzak honela banatuta daude: EH Bildurenak dira Asparrena, Barrundia, Donemiliaga eta Zalduekokoak; EAJrenak Burgelu eta

Iruraiz Gauna; eta Dulantzi independenteena.

Zuia-Gorbeialdean ere EH Bildu eta EAJren arteko lehia dago, eta legealdiz legealdi ezker abertzalearen aldera letrokatzen joan da Aramaion, Urkabustaizen, Zuian eta Legutian. EAJ nagusi da Zigoitia eta Arratzua-Ubarrundian.

Arabako Errioxan, 15 udalerrietatik 10 EAJrenak dira gaur egun: Bastida, Bilar, Ekora, Kripan, Lantziego, Leza, Moreta, Oion, Eskuernaga eta Guardia. PPri Navaridas eta Mañueta baino ez zaizkio geratzen, garai bateko nagusitasunetik. Eltziego historikoki PSE-rena izan da, baina independenteak dira egun; Lapuebla de Labarcen ere independenteak daude alkatetzan. EH Bilduk Samaniegon du alkate bakarra.

Arabako Mendialdean, EAJrenak dira Arraia-Maeztu, Harana, Bernedo eta Lagran. Kanpezun eta Urizaharran

independenteak, baina esan liteke EH Bildutik gertuagokoak direla.

Añanaldea da Arabako (eta Euskal Herriko) *far west*-a, lurralde "urruna" eta "ezezaguna". 10 udalerri dira, gehienak EAJren aldekoak: Kuartango, Erribera Goitia, Erribera Beitia, Gaubea, Beranturi eta Lantarón. Iruña-Okan PSEk irabazi ohi du. Independentek daude Añanan, Armiñon eta Zañbranan.

Bukatzeko, azken hauteskundeetan, Trebiñuko konderriaren barruan Argantzonen EH Bildu nagusitu zen, eta Trebiñun independenteak. Arabako zortzigarren kuadrilla da.

Batzar Nagusietan, EAJk aiseago nagusitu beharko luke, baina EH Bildu areago gerturatu ahal zaio. Udalerri batzuetan, lehen EAJrenak ziren batzuk EH Bildura pasatu dira eta PP eta PSE-ren botoak eta, beraz, udalerri batzuk, EAJra pasatu dira. ●

Iñigo Urkullu lehendakaria eskuinean, eta haren ezkerrean Gorka Urtean, Beatriz Artolazabal eta PSEko Gasteizko alkategai Maider Etxebarria. (Argazkia: Endika Portillo / FOKU)



BIZKAIA

Berririk ez kapitalaren gotorlekuan

Marmotaren eguna, esnatu eta elefanteak hor jarraitzen zuen... esaerak agortzen dira Bizkaian hauteskundeek zer ekar dezaketen aurreikusteko.

Enegarren aldiz, ezusteko handirik ezean, aldaketa esanguratsurik ez da gertatuko Euskal Herriko gune demografiko eta ekonomikorik handienean. EAJ garaile izango da aginte gune garrantzitsu ia guztietan. Zalantza bakarra da ea jeltzaleek bakarrik gobernatuko duten ala sozialisten makulu eskertua non baliatu beharko duten.

 AXIER LOPEZ

Bizkaiko Batzar Nagusien aginte makilaren hurrengo jabea ez dago ez-baian. Aldatuko den bakarra da lau urtez helduko duen eskua. Zortzi urtez ahaldu nagusi izan ostean, EAJren alderik neoliberaletan neoliberalenaren ordezkari Unai Rementeria mundakarrak lekua utziko –ez dakigu nahita ala behartuta– dio, bera bezala, alderdiaren hegalpean hazitako Elixabete Etxanobe otxandioarrari. Jeltzaleen ohiko kurrikuluma du: ohiko habian formatu zen, Deustuko unibertsitatean Zuzenbidea ikasita, handik Durangora funtzionario gisa, harik eta alderdiak erakunde publikoetara bideratu arte. Aurrena Otxandion zinegotzi, 2013an Eusko Jaurlaritzara pasa eta hainbat kargu bete ditu. 2021ean Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanetarako foru diputatua izendatu zuten Bizkaiko Foru Aldundian bere karreraren hurrengo pausurako prestatzeko: lehen ahaldu nagusi emakumezkoa izango da.

Baina, kurrikulumak kurrikulum eta Etxanoberekiko errespetu osoz, jakina da EAJk Bizkaian aurkezten duena aurkeztuta ere, hauteskundeak irabazteko aukera ia guztiak izango dituela. Azken hamarkadetan, alternatiba sendo errealik ez delako egituratu –2016ko Espainiako hauteskundeetan Ahal Duguk lortutako

ameskeria salbu: EAEn, Bizkaian eta ia Bilbon irabazi zuen-. Eta alternatibarik ez da ezkerrek ez dakitelako zer egin kapitalismo espainiarraren arabera bizimodu jaun eta jabe den hiriguneetan. EAJk lideratzen duen eredu hori indartsu dago. Mundu mailako krisi anizkoitzaz berbetan ari bagara ere, erakunde publikoetan kapitalaren aginte-katea bermatzen duten Bizkaiko ordezkarietan ez dirudi horrek ondoriorik duenik. EAJk ondo lotuta ditu matematikak –PSOE eta PP beti prest ditu egiturazko egitasmoak babes-teko-, botere ekonomiko eta mediatiko garrantzitsuak haren interesen arabera lerrokatuta ditu eta gainera, azken urteotan lortu du eskumaren botoa gero eta gehiago kontzentratzea haren bueltan. Areago, 2019ko hauteskundeetan EAJk bi batzarkide gehiago lortu zituen, erabateko gehiengotik bakarrera geratu zen.

Sozialistek 2015ean galdu zituzten beren ohiko plaza batzuk, eta gaur arte soilik Portugalete eta Ermuko udalei eutsi diete. Haiek galdutakoa EAJk zaku-ratu du, noski: 2019an 72 herritan izan zen lehen indarra. EH Bildu da Bizkaiko mapari bestelako kolorea ematen dion indar bakarra. Herrialdeko ekialdean, ordea. 2019an 30 herritan izan zen lehen indarra. Orduko aldaketa esanguratsu


bakarra ezkerrentzat izan zen EAJk bere ohiko plaza handi bi galdu izana. Galdakaon eta Durangon –biak ia 30.000 biztanlerekin– bigarren indarra izan zen EH Bildu, eta alkatetzak lortu zituen. Bietan EAJ eta PSE izatezko bikotea gailendu zuen, Durangon Herriaren Eskubidea hautagaitzaren babesari esker, eta Galdakaon Ahal Duguren eta bi hautagaitza independenteren botoei esker. Aurten ere bi herriotan emaitza estua izango da bi blokeen artean.

Ahal Duguren etorrerak ez du aldaketa esanguratsurik ekarri botere instituzionalaren partiketa mapara. 2019an Araban eta Gipuzkoan batzarkideen erdiak galdu zituen, baina Bizkaian mantendu egin zen. “Zerua asaltatzera” zetorrena urte gutxian PSOEn eskailera eustera pasatu da. Eta PP? Ez dago, eta inor ez dago haren zain. Nahikoa lan du etengabeko jaitsierari amaiera jartzen.

BILBOREN ETA HAREN INGURUKO KOLORE BAKARRA


EH Bilduren Bilboko hautagai Maria del Rio Peredak ondo dioenez, “Euskal Herria eraldatu nahi badugu, Bilbo eraldatu behar dugu”. Horri gehitu beharko genizkioke Bilbo inguruan dauden herri/hiri industrial ohiak –barka nazatela Getxoko

LEHEN INDARRAK 2019ko udal hauteskundeak




2019KO UDAL HAUTESKUNDEAK
Bilbo, Barakaldo, Getxo, Santurtzi, Portugalete,
Basauri, Leioa, Sestao eta Erandioko emaitzen batuketak


EAJ PSE-EE EH BILDU PODEMOS PP



Bizkaiko Batzar Nagusiak



EAJ EH BILDU PSE-EE E. PODEMOS PP Cs



Neguri zerrendan sartzeagatik-, batzuek Bilbo Handia deitzen duten bilbokeria hori. Bilbo, Barakaldo, Getxo, Santurtzi, Portugalete, Basauri, Leioa, Sestao eta Erandion 780.000 bat lagun bizi dira: Bizkaia-aren bi herenak, eta Euskal Herriaren laurdena kilometro gutxi batzuetan.

Ekuazioak sinplea dirudi: gero eta jende gehiago, orduan eta sistemaren araberrako bizimodu gehiago. Eta egun hegemonikoa den sistema politiko, ekonomiko eta kulturalak jarrera erreakzionarioagoetara lerratzen jarraitzen duenez, emaitza agerikoa da: Bilbon eta Ezkerraldeko, Uribe Kostako, Meatzaldeko eta Bilboaldeko hiri nagusietan eskuineko politikak jaun eta jabe dira aspaldi, nahiz eta urte luzez, Ezkerraldean bereziki, sozialista, obrero eta espainolez jantzita agertu. Eta ezker-erak, aldiz, oso urrun daude agintetik.

Planetan bizi dugun krisialdi anizkoi-tza zonalde horietan islatzen da gordintasun osoz: langile klasearen bizi baldintzen etengabeko narriadura; aberastasunaren eta boterearen metaketa enpresa handien, bankuen eta multinazionalen eskuetan; naturan bizirik utzi dituzten gune ba-

kanen txikitze sistematikoa gutxi batzuen onurarako; produktu gehienaren prezioen neurrigabeko igoera; etxebizitzaren prezioaren eta espekulazioaren kontrolik gabeko hazkunde; prekarietatea bizimodu gisa; bizitzaren maila guztietan gailentzen ari diren hautu indibidualistak; euskaraz bizitzeko ezintasuna 40 urtetako ofizialtasunaren ondoren; zerbitzu publikoen hondatzea osasun-sistema buru dela...

Badaezpada, ohar bat: "Gero eta egoera okerragoa, orduan eta hobeto ezkerrentzat" dioen ekuazio zaharkituak soilik esan nahi du okerrago gaudela. Baina gehiengoak langile, ikasle, pentsiodun... prekariora duen zonalde batean ezkerrek beharko luke aldaketarako motorra hurbilago, prestuago izan. Ezker abertzaleko militante ezagun, preso politiko ohi, Eusko Legebiltzarreko kide eta orain Bizkaiko ahaldu nagusirako EH Bilduren hautagai Iker Casanovak azpimarratu duenez, "herritarrak babestea helburu duen diskurtso sozialak Ezkerraldeko herritar gehienek beharizanekin bat egiten du".

Maria Del Rio koaliziokideari ere ez zaio arrazoirik falta esan duenean "Bil-

bo askoz feministagoa, ekologistagoa, solidarioagoa, ezkertiaragoa, anitzagoa, irekiagoa eta euskaldunagoa dela bere Udal Gobernua baino". Hala da, baina, tamalez, historiak erakutsi digunez, ez da nahikoa. Horregatik, berbarako, EH Bilduk 2019an Barakaldon zinegotzi bat eta 1.000 boza galdu zituen, eta Juan Mari Aburto jeltzalea Bilbon gehiengo osoa lortzeko zinegotzi bakarrera geratu zen. Aurten berriz aurkeztuko da populismo punitiboaren ikur bilbotarra.

Casanovak, halere, hauteskundeetan EH Bilduren hobekuntza handia iragarri du eta haren muina Ezkerraldean kokatu du: "Ezkerraldeko gehiengoak Euskal Herria Bildurena izan daiteke. Hauteskunde hauetan jauzi handia egingo dugu, eta hori, funtsean, Ezkerraldean izango dugun hazkunde handian oinarrituko da". Eta bai, pazientzia, konstantzia eta itxaropena beti izan dira ezinbestekoak ezkerrentzat, baina nago Bizkaian, gehien-goaren, langile klasearen, bizitzetan eraldaketa lortzeko hori baino gehiago beharko dela.

GIPUZKOA

Ziklo aldaketarako zantzu orokorrik ez

EAJk eta EH Bilduk lehen postua lehiatuko dute Gipuzkoako Batzar Nagusietan. Besterik da batak ala besteak irabazi, ezer aldatuko den Gipuzkoa mailako politketan, inkesten arabera hirugarren indarra izango den PSE-EEK EAJ babestuko duela aurreikus baitaiteke, gaur egun Aldundia bien artean kudeatzen dutela eta EAE mailan akordioa daukatela kontutan hartuta. Beraz, sorpresarik ezean, gauzak aldatzekotan, udaletan izango da –eta ez da hiriburuan izango–.

 LANDER ARBELAITZ MITXELENA

Markel Olano badoa hamabi urte agintean egin ostean (2007-2011 eta 2015-2023). Enfrentamendu politiko handiko legegintzaldiak bizi ostean –gehien bat klima larrialdi betean eraiki nahi izan duten erraustegiaren eta Bidegiko ustelkeria salaketen harira–, esan daiteke legegintzaldirik lasaiena izan duela azken hau (zein problematika nabarmendu da Gipuzkoan?). Eider Mendoza aurkeztu dute jeltzaleek Gipuzkoako ahaldu nagusi kargurako, orain arteko aldundiko bozeramailea. EH Bilduk Maddalen Iriarte aurkeztu du zerrendaburu, urte luzez ETBko kazetaria eta azken aldian EH Bilduren aurpegi publikoetako bat dena. Aipatu dugun azpiegitura kutsatzaile horrekin lotua da PSE-EE-ko hautagai Jose Ignacio Asensio ere, gaur egungo ingurumen diputatua, erraustegia edozeren gainetik defendatu ostean, klima aldagaketaren aurkako herri mobilizazioetara “Ez dugu B planetarik” lelodun kamisetarekin joateko barrenak izan zituen politikaria –ekologista beteranoenak *eskratxe* estiloan manifestaziotik bota zuten arte–. Elkarrekin Podemosek Miren Echeveste aukeratu du eta PPk Mikel Lezama.

Inkestek diote abstentzioa txikitu egingo dela, EAJ 20 batzarkideren bultzatutako delako eta EH Bildu 19ra hurrengo

bilduko zaiola, PSE-EEK mantenduko dituela bere 9ak, Elkarrekin Podemos 2ra jaitziko dela eta PPk 1 aterako duela. Vox fenomeno politiko bezala erabat marjinala da Gipuzkoan eta erakundeeetatik kanpo geratuko da itxura guztien arabera. Hauteskundearen historikoan ikus dezakegu 1979tik gaur arteko 12 legegintzalditatik 9tan EAJk agindu duela, bitan EAK eta behin Bilduk.

UDALEZ UDAL, PARTIDA UGARI ZABALIK

Azken hauteskundeetan EH Bildu izan zen lehen indarra 49 udaletan, EAJ 15etan eta PSE-EE 6tan. Hala ere, hamar hiri populatuenetan banaketa ez da hala: EAJ gailendu zen Donostian, Zarautzen, Arrasaten, Tolosan eta Hondarribian; PSE-EE Irunen, Eibarren eta Lasarte-Orian eta EH Bildu Errenterian eta Hernanin.

Errenteria aipatu dugunez, EH Bildu eta Elkarrekin Podemos daude alkatetzan. Aurreikus daiteke EH Bildu igo egingo dela eta moreak jaitzi, baina zenbat? Horrez gain, orain arte hautagaitzarik aurkeztu ez zuen herri askotan zerrendak aurkeztu ditu Elkarrekin Podemosek eta ikusteko dago EH Bilduri nola eragiten dion horrek, adibidez, Zumaiari. Azken hauteskundeetan alde oso txikiarekin irabazi zuen EH Bilduk

ondorengo herrietan (batzuk aipatzearen): Lezo, Astigarraga, Orio, Segura eta Ordizian; eta jeltzaleek ondorengotzat: Tolosa, Arrasate eta Lazkaon. Herri horietan lehia gogorrek espero dira.

Fenomeno politiko berria den heinean, ikusi beharko da GKSek eraginik izango duen hauteskunde hauetan, batez ere, indartsuen dagoen Tolosaldean eta Urola bailaran. Azken eskualde horretako Azpeitian, EH Bilduri gehitu zaio, zentral eolikoaren harira sortutako kalapita. Beste herrietan ere, Jaurilaritzatik iragartzen ari diren hamaika zentralak EAJri zer eragiten dioten ikusteke dago.

DONOSTIAN GOIA LASAI

Lasaitu ederra hartu zuen iazko urrian zortzi urte alkatetzan daramatzan EAJko Eneko Goiak, Odon Elorzak PSE-EEko primarioak galdu zituenean. 2011n Goia izan zen, matematiketik aukera eman arren, Elorza babestu ez eta alkatetzatik atera zuena, Bilduko Juan Karlos Izagirreri emateko aginte makila gutxiengoan. Elorzak ez zion sekula barkatu eta kanpainan esan zuen PSE-EEren hautagaia bera bazen, ez zuela Goia babestuko hauteskunde ostean. Aparatua aurka zuen baina, eta bidea itxi zion Elorzari. Hor amaitu ziren hiri horretan aldaketa politikorako aukerak etorkizun hurbilean.



FOKU

Inkesten arabera, EAJ igoko da eta EH Bilduk ere gorantz jarraituko du, aurreko emaitzak hobetuta. Donostian EAJ da alkatetza gehien izan dituen alderdia 1979az geroztik, lau aldiz, eta bigarren indarra gehienetan ezker abertzalea izan da (Herri Batasuna eta EH Bildu), beste lau aldiz. Dena den, hiri honetan gauzak asko aldatu izan dira, denak ibili dira gora eta behera, eta alderdi guztiak pasa dira alkatetzatik. Boto kopuruei erreparatuta, ikus daiteke badela EAJk, PSE-EEK eta PPk partekatzen duten boto poltsa bat, 2015ean, Bildu zigortzeko Goiak jaso zuena, baina ez dena EAJrena eskusiboki. Goiak bi legegintzaldiotan asmatu du boto horiei bere altzoan eusten, PSE-EEK ez dizkio lehiatzen –sozialisten gotorleku Altxa eta ekialdeko auzoak ere galdu zituzten– eta PPk jarraitzen du asmatu ezinean EAJra joandako boto horiek nola berreskuratu. Datu aipagarri gisa, zerrendako azken postuan Ana Iribar jarri du eskuin unionistak, ETak hildako Gregorio Ordoñezen alarguna.

Gipuzkoako hiriburuan EH Bildu da bigarren indarra. Legegintzaldian zehar, koalizio soberanistaren estrategia izan da Goiaren aurkakotasunarekin konektatzen saiatzea esparruz esparru eta

irudikatzea bera dela oposizioa eta hiri eredu neoliberal honen aurrean donostiarrek duten alternatiba erreal bakarra. Dena den, deskontentu horrekin deskonexio zantzuren bat edo beste igarri da hauteskunde giroa hastearekin batera, batez ere, legegintzaldi osoan turismoaren gaiarekin ildo oso kritikoa praktikatut ostean, Basque Cullinary Center-en egoitza Grosen jartzeko bozketan abstenitu egin zenean –EAJ eta PSE-EE alde, eta nahikoak ziren aurrera ateratzeko–. Jende ugari ez zuen ulertu erabakia eta manifestazioak ere hasi dira proiektu horren aurka aipatu auzoan. Independentistek Reyes Carrere kendu eta Juan Karlos Izagirre alkategai aurkeztu dute –alkate ohia, pertsona ezaguna, baina alkatetza galdu ostean atzeko atetik joan zena–, etxe barruan zeresan ugari eman duen zerrendan. Gaur egun azken indarra den Elkarrekin Donostiak legegintzaldi gogorra izan du, zinegotzien arteko kalapita eta salaketak barne, eta inkestek jaitsi egingo dela esaten badute ere, ikusteke dago zer gertatuko den.

Hirian, auzoz auzo libratzen ari diren borrokek ere zerikusi zuzena izango dute emaitzetan –aipatu dugu Gros–. Badira gehiago. Adibidez, Añorgako plan urbanistikoak auzoan eragin duen aur-

kakotasuna EH Bilduk kapitaliza lezake; baita martutenetarrei edo periferiako beste zenbait auzori erakusten zaien errespetu falta ere; edo ikusteko dago hiriaren erdiguneko metroaren lanek eta San Bartolomeko merkatal gune berriak –dendari txiki guztiak aurka dituela– botorik kenduko dioten Goiari. Dena den, hirian gaur egun gai bat bada polemikoa, hori turismoa eta etxebizitzatza turistikoena da. “Ez gaude denak, erbesterratu ekonomikoak falta dira!”, ere esan ahal izango da hauteskundeotan, hamarkada batean hiria utzi duten eta botorik emango ez duten ia 4.000 gazte donostiarren oroimenean. Zortzi urtean hiriaren turistifikazioari eta auzo batzuen gentrifikazioari alfonbra gorria jarri ostean, 50 hotel berri baino gehiago ireki eta etxe turistikoak hirian barreiatu ostean, Donostiako Udalak eginiko inkesta batean herritarren %65ek adierazi du ez dela turista gehiago erakarri behar hirira.

Sakonean gauzak mugitzen ari diren seinale izan daiteke eta Goiaren erronka nagusia izango da hurrengo legegintzaldian, orain arte bezala, interes ekonomiko horien negozio gosea laguntzea, herritarren artean gaia deskontrolatu gabe. Lortuko al du? ●



Zentral eolikoetan kontuan hartzen dira habia lekuak, baina ez harrapariantzako elikatzeko lekuak

Aitor Leiza, Itsas Enarako kidea

Zentral eolikoek proiektuek eragin dute herritarren artean mendiko bizidunekiko jakin-mina piztea. Adibiderako, Andatza-Ezkeltzu Bizirik taldeak antolatuta hitzaldia eman du Aitor Leizak maiatza hasieran, Zizurkilen. Leiza Itsas Enarako kidea da. Txikitatik du hegaztiekiko zaletasuna eta gaztetan herriko argazkilari baten lanak ikusita txunditu zen: "Dokumentaletan agertzen diren hegazti hauek denak hemen al daude?", galdetu zion bere buruari, eta hegaztiei buruz sakonago ikasten hasi zen, liburuetara jota. "Ezagutzen ez duguna ezin dugu maitatu", oroitarazi digu.

ESTITXU EIZAGIRRE KEREJETA

Haize errotek zer eragiten diete hegaztiei?

Ez da kasualitatea hemen ehiztari asko egotea: Euskal Herria Afrika eta Ipar Europaren arteko puntu estrategikoan kokatuta dago, migrazio fluxu garrantzitsua bertatik pasatzen da. Milioika hegazti pasatzen dira urtero Euskal Herri gainera eta mehatxupear dauden hegaztien kasuan, bertatik pasatzen ikuste soila oso garrantzitsua da. Adibidez, Ingalaterra aldean miru gorria ia desagertzear dago, eta Euskal Herriatik ez badira pasatzen, ez dira hara iritsiko.

Hegazti migrariak Europatik Afrikara joaten dira negua pasatzera: badira neguan Afrika pasa eta Madagaskarreraino joaten diren hegaztiak eta udan habia egitera Artikoraino joaten direnak. Migrazioarako bi fluxu indartsu daude: bata itsasokoa eta bestea lehorrekkoa. Eta hesi

natural bat dute: Pirinioak. Pirinioek badiutuzte bere pasabide naturalak, handik ere hegazti asko pasatzen da, baina eguraldi txarra baldin badago bazterrera etortzen dira, edo Katalunia aldera edo Euskal Herri aldera. Horregatik, Euskal Herrian enbutu moduko bat egiten da, bertan batzen direlako itsaso aldetik datozen hegaztiak, eta lehorretik datozenak. Beraz, Euskal Herria zeharkatu beharra dute, bai ala bai, eta edozein lekutatik pasatu daitezke. Migrazioak batez ere gauez ematen dira eta gauez ez dira haize errota ikusten... Beti oroitzen gara hegaztiekin, baina hegaztiez gain saguzar migrariak ere badira eta hegaztien antzeko arazoa daukate.

Migrariak gure mendietan hiru modutan bizi dira: negua pasatzera etortzen dira Iparraldetik gure kostaldera eta horietako batzuk Afrikaraino jaisten

dira, baina ale batzuk hemen geratzen dira negua pasatzen. Beste hegazti batzuk bertan bizi dira urte osoan, eta beste hegazti batzuk umatzera etortzen dira hona, Afrikatik gora.

Bestalde, harrapariak daude. Horien habiak bailaratan egon daitezke, gailurretik 200 metro edo kilometro bat beherago, baina elikatzeko eremuak gailurrak dira: gailur horietan dauden arratoi, sagu, sugeak jaten dituzte. Zentral eolikoek proiektuetan askotan garrantzia ematen zaio animalia bat bertan umatzen den edo ez begiratzeari. Baina, batez ere harraparietan, beraien elikatzeko era zela gainetan hegan egitea da, eta hain justu elikatzeko leku horietan kokatu nahi dituzte haize errota guztiak. Beraz, askotan garrantzia handiagoa du elikatzeko lekuak eta ez habia duten lekuak. Harrapariek askotan ez dute lehen



Ezkerrean, hegazti migrariak Europa eta Afrika artean egiten dituzten fluxuak. Euskal Herria da Iparretik Hegorako migrazio pasabide nagusia. Eskuineko argazkian Aitor Leiza zumaiaarra, maiatzaren 2an Zizurkilan hitzaldia emateko prest.

haize errotarekin talka egiten, baina haize errotaren besoek sortzen dituzten haize zurrumbiloen ondorioz, hurrengo haize errotarekin egiten dute talka.

Ezkeltzun bizi diren zein hegaztik eta landarek ematen dizute arreta? Zergatik?

Ezkeltzun harrapariak dira kaltetue-nak izango direnak. Harraparien artean dugu miru gorria: bertan habiak egiten hasi dira eta hori berria da, duela hamar urte ez zegoen ale bakar-raren habiarik ere.

Pentsa hegaztiekin zer egoeretan gauden: abere bat hiltzen denean, abeltzaina behartuta dago menditik kentzera. Zergatik? Era naturalean, hegaztien artean lehenbizi etorriko lirakeke bele, erroi, miken familia-koak, haragi zati bigunak jatera. Eta haiek aterako duten zalapartarekin, sai zuria etorriko da atal bigunak jatera. Putreek ikusiko dute hegaz-tien jai hori eta haiek etorriko dira hezur arteko haragia jatera. Eta zi-kloa bukatzeko, hezurra jatera uga-tza etorriko da. Hori guztia bultzatu beharrean, gizakiok joaten gara ka-mioiarekin hilda dagoen aberea jaso-tzera, eta aldi berean, janlekuak sor-tzen ditugu hegaztiekin jan dezaten.

Nafarroan zentral eolikoek 8.900 hegazti baino gehiago hil dituzte

Sustrai Erakuntzak *Bioaniz-tasuna Nafarroan, galtzeko arriskuan den bizi-baliabidea* txostena kaleratu du. Bertan irakur daitezke Nafarroako Gobernuak 2021eko iraila bitarte jaso dituen datuak. Sustrai Erakuntzak nabar-mendu du kopuru horiek gutxiene-koak direla, haize erroten inguruan zenbatu diren gorpuei baitagokie. Hildako kopuru erreala handiagoa dela dio, erortzen diren lekuaren arabera hainbat hegazti eta batez ere saguzarren gorpua aurkitzea oso zaila delako, edo hil orduko har-rapariak eta piztiak jaten dituz-telako. Gainera, datu hauei gehitu beharko litzaizkieke zentral eoli-koekin batera hedatzen diren ten-sio altuko eta ertaineko kableek eragindako hildakoak.

1998-2021 artean guztira hilda-ko 8.961 hegazti eta saguzar zenba-tu ditu Nafarroako Gobernuak. Gor-pu horiek 158 espezieetakoak dira.

Arreta ematen du Cavar zentral

eolikoak, 2020an eraiki berria iza-nik, urte bakarrean 37 espezieetako 206 heriotza zenbatu baitira ber-tan. Valtierra eta Cadreita artean dago, eta eraiki aurretik herrita-rrek ohartarazi zuten Bardeetatik gertu egonik eta hegaztien pasale-ku izanik, kaltea eragingo zuela.

MIRU GORRIA: BABESTUTAKO HEGAZTIEN ARTEAN KALTETUENA

Nafarroan galtzeko arriskuan izen-datutako hegaztien artean, miru gorria da haize errotek gehien hil duten espeziea: 98 zenbatu ditu Nafarroako Gobernuak.

Zaugarri izendatutakoen artean Naumann belatza da haize erroten kalte handiena jasan due-na: 36 gorpu zenbatu ditu Nafa-rroako Gobernuak.

Hegazti espezie guztien artean sai arrea da haize errotek Nafarroan gehien hil dutena: 3.359 hilotz zen-batu ditu Nafarroako Gobernuak.

Niri zer axola zait gure mendian zomorro hori desagertzen bada?

Gure zibilizazioa energia eta materialen krisiatatik kinka larrian eta aldiz, herrietan sortu berri diren taldeak zentral eolikoak mendietan jartzeko erreparoz, zer eta bertan kakalardoak edo saguzarrak bizi direlako? Tabernako kalakan, horiek "aitzakiak" edo "apetak" dira, herritar askoren iritzirako.

Aitor Leizak hauxe erantzuten dio "niri zomorro hori bost" esaten dionari: "Ba al dakigu galzorian dagoen zomorro horrek zer eragin daukan landareengan? Adibidez, argi ikusten dugu erleekin: erleak desagertzen ari dira, eta erleak desagertzen badira polinizazioa galduko da eta ez dugu hainbeste fruiturik izango. Zomorro batek zer eragin izan dezakeen ez badakigu, ez guke gal-tzen utzi behar, arriskuan dagoela jakinda".

Aitziber Sarobe biologoak hitzaldia eman zuen Zizurkilen apirilean eta zera adierazi zuen: "Ez da neurtu oraindik onartu gabe dagoen Jaurilaritzaren Lurralde Plan Sektoriale (LPS) osorik garatzeak izango lukeen ingurumen eragina. Proiektu bakoitzari ingurumen baimena eman edo ez aztertzen da, baina ez dago begirada orokorrik. LPS osoa gauzatuko balitz ere, EAEn 70 zentral eolikotik gora jarrita, egungo energia kontsumoaren %40 soilik hornituko guke. Eta horretarako, sekulako eraso egiten ari gara naturari. Krisi energetikoaren aterabideak ezin du izan biodibertsitatearen eta ondare naturalaren galera, zeren eta horrek are krisi handiago batera eramango gaitu. Hori erakutsi digu COVID-19ak. Gu ez gara naturatik aparte bizi garen bizidunak, gu sistema bizidunaren parte gara. Gure ingurune naturalaren menpeko gara eta ez dakigu noraino. Ez dakigu ingurune natural horretatik zenbat pieza kendu ditzakegun animalia gisa gure biziraupena zalantzan jarri gabe. Dakiguna da gaur planeta honetan bizi garen bizidun guztiek elkarrekin eboluzionatu dugula. Denok iritsi gara garai honetara elkarrekiko harremanetan. Eta ez ditugu harreman horiek ezagutzen. Ordu asko pasatu ditugu ikertzen baina ez gara iristen sistema horren ulermenera, bizitza oso sistema konplexua da".



Miru gorria Zizurkilen hegan, Green Capital enpresak 200 metroko lau haize errota jarri nahi dituen Ezkeltzu gainetik hurbil. "Galtzeko arriskuan" dagoen espezie gisa sailkatuta dago Espezie Mehatxatuen EAeko Katalogoan.

BENAT IBARRIA OIARTZABAL

Ugatza, hezurak jaten dituen, laster izango dugu gure mendietan. Kate trofikoan gailurrean dago, hezurak txikitu eta jateko garatu den bakarra da. Aralarren hirukote bat dago, Urbanen beste bikote bat... eta tarteka beste mendietan ikusten dira.

Landare aldetik, kontuan izan behar dugu Euskal Herrian benetako basoak oso gutxi direla, baso oso sistema konplexua baita. Sistema konplexu horiek duela ehun urte suntsitu ziren, hektarea gutxi geratzen dira kontserbatuta eta elkarren artean loturarik gabe. Gainera, nekazaritza galtzeak mendian ditugun belardi, mosaiko eta ertzetako eskaiak (sasi eta zuhaixkaz egindako hesi naturalak, txarrantxarrik gabeko hesi berdeak) galtzea dakar. Baserritarrekin batera egitura horiek desagertuko dira. Ekosistema horiek ongi datozkien hegaztiak ere gainbeheran daude eta horietako batzuk badaude Ezkeltzun, adibidez, belatz gorria.

Euskal Herriko espezie mehatxatuen zerrendatan badira hainbat landare eta hainbat hegazti. Arriskupean dauden espezie horien kasuan, legearen arabera ikerketa egin behar da, ez galtzeko zer egin eta inguru hori nola kudeatu behar

"Agian, Aldundiek nahita ez dituzte eginda mehatxupean dauden espezieen kudeaketa planak, eoliko moduko proiektuak jarri ahal izateko"

den zehazteko. Agian, proiektu hauek egin ahal izateko nahita ez dituzte eginda espezie horietako bakoitzaren kudeaketa planak, kudeaketa planak egingo balira agian ezingo bailirateke horrelako jardueretako batzuk egin. Eusko Jaurilaritzari dagokio mehatxupean dauden espezieak izendatzea, baina Aldundiei dagokie espezie horietako bakoitzaren kudeaketa plana egitea. Eta Jaurilaritzaren zerrendan mehatxupean dauden animalia eta landareen artean, oso gutxi dute kudeaketa plana idatzita. Gainera, ez da soilik plana idaztea, hainbat urteren buruan errebisatu egin behar dira, eta ez da egiten. ●

ALTXORRAK ETA ALTXORRAK ULERTZEKO MODUAK



MARTA BARBA GASSÓ

Haziak altxorrek direla entzun dut maiz. Hazi hibridoak ekoizten dituen enpresa bateko langileak hala adierazi zidan: "Hazi-enpresen altxor handiena hazi hibridoaren parentalak dira". Hazi hibridoak ekoizteko erabiltzen diren hazi eta landareak dira parentalak. Hazien haziak. Altxorrerako bide. Eta, zer egiten dute parentalekin hazi-enpresa multinazional erraldoiek? Bada, altxorra beraientzat gordetzeko asmotan, merkantilizatu eta pribatizatu. "Babestu"? Jabetza eskubideekin erregistratzen diren barietateei "barietate babestuak" deitzen zaie-eta... Hori ironia!

Haziak altxor badira, hazi hibridoaren parentalak are gehiago. Parentalen kontrola izateak salduko dituzten hazien gaineko kontrola ematen die hazi-enpresei eta, beraz, parentalak beraientzat gorde nahi dituzte, etekin ekonomikoa beraientzat gorde asmotan. Bada, bai, modu bat, haziak eta bizitza ulertzekoa; altxorra mugatua eta finitua den zerbaiten gisan ikusten duen ikuspegia, hain zuzen. Baina, hori horrela al da haziez ari garenean? Ugaltzeko erabiltzen diren izakiez ari garenean, ez al dugu parean altxor mugagabea? (horrek dakartzan arrisku guztiekin). Edo, are, biderkatzeko gaitasuna duen altxorra? Agian hori da gakoa, altxorra biderkatzeko gaitasuna dutela haziak eta, beraz, "babesteko" eta pribatizatzeak are interesgarriago direla? (ai, iruditzen zait antzeko zerbait gertatu dela historikoki emakumeen ugalketa eta gorputzarekin).

Babesteko, baina, badira bestelako ekimenak, haziak altxor gisa bai, baina beste ikuspegi batetik ikusten dituztenak. Esaterako, hazi-banku ugari dago munduan zehar barreiatuta. Eta, gorde soilik ez, haziak ugaltu, zabaldu eta partekatzen dituztenak ere badaude. Zeren... biderkatzeko gaitasuna duen



DANI BLANCO

zerbaiti buruz ari garela, gorde baino, zabaldu eta ugaltu behar litzateke, ezta? Haziak ekoizteko elkarte, enpresa edo ekimen txikien biltegietan eta baratzeetan bestelako altxorrek ikusi ditut nik. Edonork etxean ugaltu ditzakeen barietateen haziak. Asko, bertakoak. Denak, ezberdinak. Eta altxor are bitxiagoak ikusi ditut zenbait baratzezainen biltegi inprobisatuetan: txaboletan gordetako kutxa eta potioetan, egunkari ale zaharrek ingandako paperinetan, landareak buruz beheara jarrita ganbaretan... Eta, ikusi eta entzun dut nola baserri, baratze, eta ekimen, enpresa edo kooperatiba txiki horietan haziak trukatzeko dituzten, ematen dituzten, eskatzen dituzten. Eta haziarekin batera mila "trikimailu", jakintza eta esperientzia, mila historia eta istorio partekatzen dituzten. Eta, orduan, gogoratzen naiz, behin baino gehiagotan kontatu didatela, garai batean, baserri bat saltzarekin batera

baserriko haziak ere saldu ohi zirela. Eta burura datorrit, Bilboko Alde Zaharrean bazegoela (badagoela?) oso txanpiñoi onak egiten zituen taberna bat, eta noizbait entzun nuela taberna saltzarekin batera saldu zutela txanpiñoien saltsaren errezeta. Eta, orduan, otu zait badaudela altxorrek eta bizitza eta ugalketa eta etorkizuna ulertzeko modu anitz. Eta modu horiek erabat eragiten diotela bizitzari, ekologiari, munduari eta gure elikadurari.

Komunala izan daitekeen altxor handia dira haziak. Komunalean landu, jorratu, erein, ugaltu eta trukatzeko gero biderkatzen den altxorra. Baina, pribatizatuz gero... Entzun diozue noizbait ekonomia feministari bizitza eta kapitalaren arteko talkaz hitz egiten? Haziak altxor handi bat dira, bai, eta gure esku dago altxor hori nola ulertu. Nola kontrolatu, pribatizatu eta galdu. Edo nola zaindu, kudeatu, ugaltu eta partekatu. ●



BARATZEAN HASIBERRIENTZAKO IPUINA



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Ekin iezaiozu baratzeari. Aspaldi buruan hara-hona darabilzun asmo hori mami-tzeko sasoi ezin hobea da hau. Bidea jorratzeari ekiteko xedeak erein, intentzioak zehar landatu, diseinuak aldatu, helburuei makilak jarri, Proposituen loreak polinizatu eta ideien uzta bildu. Erraz esaten da.

Hasiberriarentzako jakingai txiki batzuen ipuina. Azenarioak (*Daucus carota subsp. sativus*) tipula (*Allium cepa* var. *cepa*) maite du; baita uraza (*Lactuca sativa*) ere, eta tomatea (*Lycopersicon esculentum*) eta piperra (*Capsicum annuum*) eta errukula (*Diplotaxis tenuifolia*) eta porrua (*Allium porrum*) eta baratzuria (*Allium sativum*) eta... Maitalez inguratua bizi da azenarioa baratzean; ia landare guztien bekaizgoa puzten du, eta berak badaki. Eta gero hil eta jango duzula jakinagatik ere, maitalez inguratutako azenariotxoak bezala azenariotzarrak zu ere bekaizkeriak erretzen zaituela badaki, ondo jakin ere. Maitaleez gain beste desio batzuk ere baditu azenarioak. Ur-asetutako lurrak eta harriak ez ditu ikusi ere egin nahi; buztin lurrari bizkarra ematen dio, baita patatari (*Solanum tuberosum*), erre-molatxari (*Beta vulgaris subsp. conditiva*), apioari (*Apium graveolens* var. *dulce*) eta artoari ere. Bihozberatzen dute simaur zahar-rak, kareak eta errautsak; loa kentzeraino urtzen dute mausarrak eta hondarrak.

Azak (*Brassica oleracea* var. *capitata*) ez

du maite arbia (*Brassica rapa subsp. rapa*), ezta artoa (*Zea mays*), ezta errukula, ezta mihilua (*Foeniculum vulgare*), ezta kuiatxoa (*Cucurbita pepo* var. *pepo*), ezta errefaua (*Raphanus sativus*), ezta marrubia (*Fragaria ananassa*) ere. Baina nork ez du maite marrubia? Izan ere, aza amandrea dozenan hamahiruko horietakoa da, handia...

Porrua bai, porrua marrubiarekin txoratzten da. Bien usainak izan daitezke, edo koloreak edo... Bada horien artean zerbait, gai-nontzeko baratzekideek ulertzen ez dutena.

Ilarrak (*Pisum sativum*) ez du ura maite, ezta beroa ere. Lehor eta fresko antzeko negu amaierarekin eta udaberriekin, biekin maitemintzen da, urtero.

Babarrunak (*Phaseolus vulgaris*) zale ugari du: maitatzaille, maitale, amorante eta jostalagunetik nahi adina, azenarioari begibatzerraz begiratzeko lain. Bestelakoak ere baditu ordea, *Allium* leinu zaharreko gure hirukote maiteenak, adibidez: porrua, tipula eta baratzuria. Lauen zale amorratuak diren errefauak eta urazak ehunka urtetan elkar hurbiltze aldera direnak eta ez direnak saiatu eta eginagatik ezin izan dute babarruna eta *Allium*tarren adiskidetasun itunik sinatu.

Erremolatxa, bere gorritasunean, bana-koa da, bitxia: ez zaio ba gatz gustatzen! Itsasokoa bai, gatz arrunta. Eman lurrari metro koadroko 15 bat gramo. Aho sabaian igarriko diozu, gorri horri! ●

IRAKURLEAK GALDEZKA

Kaixo!

Gurean beti belarra ekain amaieran mozten da, negurako ganbaran gordetzeko. Data hori maiatza hasierara mugitu ezkerro zein onura eta desabantaila ikusten dizkiozu?

✍ Aritz

Ni ez naiz lan horiek data jakin batzuei lotuta egitearen aldekoa. Belarra moztu, ondu eta jasotzeko lanak, adibidez, noizko lanak dira? Nik belarrari berari begiraten diot. Negurako belar ondu onena izateko, kalitate goreneko bazka izateko, noiz moztu?

Belarraren energia guztia hostoetan dago eta une jakin batean garatu eta lorea ematea erabakitzen du. Energia hostoetan eta lorean egongo da. Lore hori ernaldutakoan hazia bihurtuko da; orduan energiaren zati handi bat hazian pilatuko da. Hazitan dagoenean mozten badugu, hazi asko erori eta galduko da ganbararako bidean. Niretzako sasoi onena, beraz, lorea irekitzen duenean da.

Zeuk ikusi, ondo ikuskatu eta zuen belazeko belar nahasketako belar gehienak loratzen direnean nik orduan moztu eta onduko nuke. Eguraldiak laguntzea beste upeleko sagardoa da...

Bidali zure galdera:
bizibaratzea@bizibaratzea.eus

ZITUENE

"HEMEN HURBILEAN PASTARIK EGITEN EZ ZELAKO ABIATU GENUEN PROIEKTUA"



GARAZI ZABALETA
@TIRIKITRANN

Oreretako Erdiko kalean bada pasta egiteko obradore eta denda berezi bat: Zituenene. 2016an eman zituzten lehen pausoak proiektuaren sortzaile diren Iker Eizagirre Gallardok eta Naiara Retegi Lekunak. "Pasta oinarritzko elikagaia dela eta hemen inguruan horrelako proiekturik ez zegoela ikusita, guk geuk zerbait martxan jartzea erabaki genuen", azaldu du Retegik. Etxean hasi ziren saltseatzen lehenik, eta behin esperientzia pixka bat zutela, 2018an lokala ireki zuten. Obradore kooperatiboa eta denda dituzte bertan.

KONTSUMITZAILETIK EKOIZLERAKO JAUIZIAK

Nekazaritzarekin edo elikadurarekin lehenagotik harremanik ba ote zuten galdetuta, ondokoa erantzun du proiektuko kideak: "Lotura bagenuen, baina kontsumitzaile bezala. Kontsumitzaile ginen, eta elikadura burujabetzaren bueltan militante ere bai". Hurbilean eta modu jasangarrian ekoiztutako elikagaiak kontsumitzeko bide horretan ohartu ziren haiek nahi zuten pastarik ez zutela aurkitzen inguruan. "Barazki saskia hartzen genuen, arrautzak, ogia... baina pastarik ez zegoen, eta beraz, pausoa ematea erabaki genuen", dio.

Kontsumitzaile izatetik ekoizle ere



izaterako jauzi horretan, bidelagun izan dituzte Euskal Herrian pasta ekoizten duten beste proiektu txikiak, esaterako, Bizkaiko Txaramela. "Haiek utzi ziguten hasieran makina bat, eta horrekin hasi ginen, batez ere pasta freskoa egiten". Beste ekoizleen laguntzarekin, arituz ikasi dutenarekin eta kontsumitzaileen partetik jaso duten erantzunarekin joan dira ikasten eta hobetzen. "Obradorea ireki genuenean masa egiteko eta luzatzeko makina eskuratu genuen, gure hirugarren langilea dela diogu", dio Retegik umorez.

PASTA FRESKOA ETA LEHORTUA, EKOLOGIKOA

Hurbileko ekoizleekin lan egitea zen proiektuko kideen ideia hasiera batean, baina lehen sektorearen egoera dela-eta, ez zaie erraza egin aukera horri guztiz eustea. "Ekoizle txikiekin eta bertakoekin lan egitea zen gure asmoa, baina proiektu

tuari forma ematen hasi ginenean ikusi genuen zaila izanzen zela. Semola hemen inguruan lortzea, esaterako, oso zaila da", azaldu du. Lehengai ekologikoak erabiltzen dituzte Zituenen, horretan jarri dute marra gorria, momentuz.

Proiektua egonkortzen doan heinean, baina, sakondu nahi dute lanketa horretan, hurbileko ekoizleekin harremanak finkatzeko eta bertako barietateak errekuperatzen saiatzeko. "Urte gehiagoko lana eskatzen du horrek, eta proiektua sendotzea. Pixkanaka, joan nahi dugu alor horretan ditugun etxeko lanak egiten", dio. Batik bat haien dendan saltzen dute pasta Zitueneko kideek, baina baita hurbileko kontsumo taldeetan eta beste zenbait dendatan ere. "Pasta freskoa nahiz deshidratatua saltzen dugu. Freskoa da guri gehien gustatzen zaiguna, baina egia da gaur egun ez dela erraza produktu freskoekin lan egitea", amaitu du. ●

ERAKUSKETA
Murtearen 50. urteurrena
Zituenene
Maiatzak 15
Sutegin Usurbil

<https://650usurbilbizi.eus/agenda>



Eman izena!

USURBIL MUSEO IREKIA

Bisita gidatuak

Maiatzak

6 - 7

13 - 14 - 17 - 28

ARGIA BULETINA

Ondo informatuta egoteko buletina

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Interneten egunkari digital bat izatera iritsi da ARGIA. Mende laurden batean 'Euskal Kulturaren Haria' izenez kultur albisteen errepaso bat egiteko egunerokoaren jarraipena egiten duen ataria izatera heldu da Argia.eus. Aldaketak nabariak dira eta horien isla dira egunero milaka pertsonari bidaltzen zaizen buletina.

Egunean gertatutakoaren bilduma soila baino gehiago da ordea. ARGIAko erredakzioan ahalegin handia egiten dute etxean eta munduan gertatzen diren kontuei fokua jarri eta testuingurua ulertzeko moduko edukiak eskaintzeko: hurrengo egunean gertatuko direnak, aurrera begirakoak, analisi kutsua dutenak, CC BY-SA lizentzia libreari esker zabaltzekoak, azken ordukoak... Horretarako biltzen dira, adibidez, goizero-goizero egun horretan webgunearen martxa eraman behar duten kazetariak (albisteak idatzi behar dituztenak, miaketa lanetan aritzen direnak eta editoreak).

Buletina astelehenetik ostiralera bidaltzen da, eta askotan hogeitabistetik gora joan izan dira. Normalean arratsalde edo gau partean iristen da emailera, bai-

na gertaera garrantzitsuren bat baldin badago buletin bereziak ere bidali izan dira noiz edo noiz.

Eguneko buletinez gain, badira posta elektronikoz astekaria PDFan jasotzen dutenak, eta Bizi Baratzia buletina jasotzen dutenak ere bai. Denera 10.000tik gora lagunengana iristen da ARGIA modu horretan.

Hedabide guztietan zaintzen da asko informazioaren aukeraketa. Denek hautatzen dute zer informazio nahi duten zabaldu (eta zer ez). Baina bakoitzaren filtroak zein diren, hori da aldea.

Buletina teknologia burujabetzan aurrera egiteko tresna oso garrantzitsua bilakatu da ARGIArentzat. Horren bidez, harreman zuzena dauka irakurlearekin, Twitter, Facebook eta antzeko erraldoiak tartean sartu gabe.

Janari prestatua bezalaxe iristen zaigu gaur egun ia informazioa. Dirudi ahaztu zaigula produktuak erostera joandakoan azokan postu batetik bestera pasatzen, onenak zein diren –edo



gehiengustatzen zaizkigunak, behintzat– gure kabuz aukeratu, sukaldean egin eta irentsitakoan gure ondorioak ateratzen. Dena nahi dugu prest, *fast information*, murtzikatuta eta digerituta bada, hobe. ARGIAk azokako lehen buelta egiten du, bere galbahea pasa, erostekoak iruditzen zaizkionak bildu eta eguneko eskaintza osoaren barruan hautaketa eginda buletineta bidaltzen du. Baina murtzikatzea, digeritzea eta ondorioak ateratzea norberaren esku.


Oraindik ez bazara buletinera harpidetu: argia.eus/buletinak. ●

DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA



Amelia Barquin

Zumaiako Foronda jauregian Amelia Barquinen formazio saioaz gozatzeko aukera izan zuten ARGIAko lankide eta kolaboratzaileek, joan den apirilaren 21ean. Mondragon Unibertsitateko irakasle eta Kulturartekotasunean adituak kazetaritzan erabiltzen den hizkuntzaren erabilera sexismoak, adinkeriak, arrazakeriak, indarkeriak, kapazismoak... duten presentzia hausnartzeko bide eman zuen. Besteak beste, generoaren inguruan ditugun hainbat uste zalantzan jarri zituen gasteiztarrak: "Euskararen mundua ez da batere atsegina izan emakumeekin, nahiz eta batzuetan kontrakoa pentsatu, oso mundu patriarkala ikus dezakegu".



Henry Forden utopia, besteen distopia



**NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA**

Amazonia, 1928. Ford automobil konpainiak Fordlandia izeneko herria eraiki zuen oihanean, Amazonasen ibaiadar Tapajos enertzean. Henry Ford (1863-1947) asmoa kautxua ekoiztea zen, bere autoen gurpiletan erabili ahal izateko; ordura arte, kautxu ekoizpenaren monopolioa britainiarren eta herbeheretarren esku baitzegoen. Baina, bide batez, plantazioan eta fabrika jardungo zuten 3.000 langileentzako herri utopikoa eraiki zuten, eta AEBetako ohiko etxetxo familiabakar zuriz josi zuten oihanari lapurtutako eremua; edozein herrialdetako langile pobreen ametsa baita AEBetako langile pobreen bizimodua izatea. Eliza, ospitalea, dantzalekua eta igerilekua ere eraiki zituzten, baita AEBetako paisaia tipikoan agertu ohi diren ur biltegi distiratsu horietako bat ere. Eta ugazaba estatubatuarrentzat auzo berezi bat egin zuten, luxuzkoagoa, desberdinkeria “amets amerikarraren” funtsezko osagaia baita.

Brasildar langileek estatubatuar zintzoak bailiran jokatu zezaten, Fordek herriaren eremuan erretzea eta alkohola edatea debekatu zuen, baita futboleko aritzea ere –jakina, haiek *soccer* esaten dioten kirola zen debekatu zutena, ez estatubatuarren “benetako” futbola-. Gainera, arauak betetzen zirela ziurtatzeko, ugazabek langileen etxeak nahieran miatzeko baimena zuten. 9:00etatik 17:00ak arteko ohiko ordutegia ezarri zieten; langileek esan zuten egunsentian eta iluntzean lan egin ohi zutela,



Fordlandiako kautxu fabrikako eraikin nagusietako bat eta ur biltegia, gaur egun.

eguerdian, eguzki galdatan jarduterik ez zegoela, baina ez zieten jaramonik egin.

Estatubatuar janaria ere inposatu zieten Fordlandiako biztanleei. Gustuaz eta ohiturez haratago, dieta estatubatuarrek urdaileko arazoak eragiten zituen oihan tropikalean eta, hala, 1930ean hainbat langile matxinatu ziren fabrikako jangelan. Ugazabek oihanera ihes egin behar izan zuten, Brasilgo Armadak matxinada itzali zuen arte. Eta langileak lanera itzuli ziren... ezer gutxi produzitzeko.

Soildutako lursail heze eta malkarrak ederki ezagutzen zituzten profesionalak baztertzuz, Ford konpainiako ingeniariak antolatu zuten kautxu plantazioa. Baldintza horietan hiruzpalau zuhaitz

ondo hazteko eremuan 80 zuhaitz inguru sartzea erabaki zuten, ekoizpena handitzeko. Baina hezetasunak eta kontzentrazioak eraginda, izurriek jan zuten ekoizpena. Erabateko porrota onartuta, Fordek 1934an guztiz abandonatu zuen Fordlandia, eta proiektua handik 40 kilometrorra, Belterran, berrabiarazi zuen; kautxu sintetikoak ekarriko zuen bigarren saiakera hura ere bertan behera uztea.

Fordlandian ekoiztutako kautxu gramoa bakar bat ere ez zen iritsi Ford auto baten parte izatera. Eta Henry Fordek berak ere ez zuen sekula amestutako herri idilikoa zapaldu, beste fobia askoren artean, germenek ere fobia bizia baitzien. ●

Urak egotzi zituen bikingoak

X. mendetik XV. mendearen erdialdera arte bikingoek Groenlandia okupatu zuten, baina hamarkada gutxiren buruan uhartea utzi zuten. Klima gogortzea, bertako herriei izandako gatazkak edota merkataritza sareak eten izana argudiatu izan dira hori azaltzeko. Orain arrazoi horiekin guztiekin lotuta dagoen

beste hipotesi bat bota dute Harvardeko Unibertsitateko hainbat ikerlarik: izotz masa handiek grabitazio erakarpenean horrek Groenlandiako kostaldean itsas maila 3,3 metro igotzea eragin zuen. Aurreko 500 urtetako bizi baldintzak guztiz aldatzea ekarri zuen horrek. ●



J.T. STEWART

“ ”

Gure garaikideak dira klasikoak

Nuccio Ordine

Nuccio Ordine (Diamante, Calabria, Italia, 1958) gurutzada bat darama aspaldidanik: humanitatei, literaturari, klasikoei dagokien lekua ematea gure gizarte hauetan. Ez dirudi erraza, baina garaipen bat edo beste pilatu du honezkero: *L'utilità dell'inutile* ("Alferrikakoaren balioa") liburu-manifestuak ehun milaka ale saldu ditu Italian, Grezian eta Espainian. Proposatzen digun azken bataila, *Gli uomini non sono isole* ("Gizonak ez dira irlak"), gaztelaniaz atera da orain, Acantilado etxearen eskutik. Asturiasko Printzesa Saria irabazi du oraintsu, Komunikazio eta Humanitateen atalekoa.



ARITZ GALARRAGA



DANI CODINA

Ohorea da niretzat, besteak beste, George Steinerri azken elkarrizketa egin ziona elkarrizketatzea.

Steiner jaunarekin izan nuen adiskidetasuna bizitzaren oparia da. Ikasle nintzela irakurri nuen, irakasle gazte nintzela ezagutu Parisen, eta gure arteko harremanak ez du etenik izan geroztik. Hari buruzko liburu bat argitaratuko da aurkitartean egongo da elkarrizketa *postumo*–, bere pentsamendua aurkezteko saiakera batekin. *Apopilo ezeroso* gisa definitzen dut: unibertsitatean eman zuen bizitza osoa, baina kritika oso gogorra egin zion parasitismoari; kritikaria izan zen, baina umiltasuna defendatu zuen, atentzioa liburuek merezi dutela, noski, eta inola ere ez kritikariei; eta, judutarra izanik, defendatu zuen Israelgo estatua-ren nazionalismoak ez duela zerikusirik kultura hebraikoarekin, eta nola tortura dezakeen torturatua izan den herri batek. Jendeak entzun nahi ez dituen gauzak esan zituen.

Hurrengo galdera ere derrigorra da: Italiatik zatoz, ultraeskuinak dauka gubernua... Gaingiduta zeudela uste genuen gauzak ikusten ari gara.

Munduan zehar gertatzen ari da, *Prima gli italiani, America first, France d'abord, Brasil acima de tudo...* Antzerako ideia da, nazionalismo patologiko bat, pentsatzen baita bizi gaitezkeela lurralde batean itxi-itxita. Erokeria da, mundua eta humanitatea aurkezteko modu miserabile bat. John Donnek jada esan zuen, gizakiaren irla-begirada oso arriskutsua dela, gizaki egoista, bere buruan baino pentsatzen ez duena, bizitza orokorrean modu bakarrekkoa izan daitekeela uste duena. Niretzat humanitatea beste gauza bat da, Senekak zioen hura, zure bizitzak zentzua hartzen duela besteentzat egin ditzakezun gauzekin. Formula zoragarria da: humanitatea kupula bat litzateke, elkarri lotutako adreiluz egina, eta adreilu bat erortzen bada guztiak erortzen dira. Giza elkartasuna da funtsezko ideia.

Horren kontra joango litzateke identitatearen gehiegizko goratzea.

Hau da Teseoren barkuaren mitoa: Minotauroa hil eta gero, Atenaseko portuan uzten dute, garaipenaren sinbolo; baina, 50 urteren buruan, egurra puskatu, egur berriarekin konpontzen dute... Jarraitzen du izaten Teseoren barkua?

Alegia, identitatea ez dela sekula egonkorra, beti da dinamikoa, zaharraren eta berriaren arteko nahasmena. Kutsatu gabeko identitatearen ideia, eskuineko jendeak defendatzen duen gisakoa, oso arriskutsua da. Ez dago aipatu beharrik zer egin zuen Hitlerrek arraza arioaren purutasunagatik. Zer da arraza ario? Ni naiz kalabriarra, latindarra, greziarra, arabiarra, eta oso harro nago ugaritasun horretaz. Identitate erradikalaren ideiak sor dezake arrazakeria eta xenofobia. Nik uste dut, kontrara, erlijio, kultura, hizkuntza pluraltasun bat dagoen munduan, mundu hori zirraragarria izango dela. Izutzeko modukoa iruditzen zait erlijio,



kultura, hizkuntza bakarra izan dezakeen mundu bat.

Ahaztu zaigu, gainera, mundu ikuspegi monokromo horrek nora eraman izan gaituen. Gauza asko nahasten dira: historiaren zuritze bat, banalizazio bat, adanismo modukoa... Historiaren gaineko ezezagutza, alegia.

Gaur mespretxatu egiten dira historia eta memoria, bi gauza oso garrantzitsu. Gizarte oso teknologikoan bizi gara, eta teknologiaren ikuspegian etorkizuna da balio duena, eta ez orainaldia; jada zaharkitua dago gaurkoa, eta zer esanik ez aurreko guztia, ez du ezer balio. Uste dut memoriak zeregin oso garrantzitsua daukala, eta historiak gauzak erakusten dituela –nahiz gizakiak akats berdinak errepikatu–; memoriarik gabe, historia-rik gabe, ezin duzu ezer ulertu.

Hezkuntza programak ikusten ditudanean, 4.0 Eskola eta abar, asaldatu egiten naiz: zer esan nahi du, 3.0 Eskolak ez duela ezertarako balio? Iphone 13-ak pentsarazten dizu aurretik egon diren hamabi Iphone-k ez dutela balio, zaharkitu direla; zaharkitze programatuaren ideia da hori. Aurrekoa zergatik ez da ona berriarentzat? Ez da kasualitatea mundu greziararen memoria izatea jakitate guztien ama, jakitate berriak memoriaren seme-alaba izatea. Gaur ez dugu historia-rikiko interesik, dirua egiteko programatuta gauden mundua baikara, etorkizunera begiratzen dugu soilik, teknologiaren azken produktuari. Kontsumitzeko bulkada izugarria dago, eta gazteak kontsumitzaile programatuak dira, eskolan, unibertsitatean... Ez ditugu hiritar kultu eta kritikoak hezten, kontsumitzaile pasiboak sortzen ditugu, dirua egitea beste pentsamendurik ez duten soldadutxoak, arrakasta lehenesten dutenak.

Literatura eta klasikoak nola kokatzen dira mundu horretan? Edo, Italo Calvinoren galdera eginez, zergatik irakurri gaur egun klasikoak?

Iraganean idatziak izan arren, klasikoak beti dira gure garaikideak. Garai guztietarako balio du premisa horrek. Kontua da zer galdera egiten diegun klasikoei, eta gaur egunean irakurtzen ote ditugun eskolan, unibertsitatean. Egiten dudana kritika da: gazteek ezagutzen dituzte klasikoak, baina manualek egiten dituzten laburpenetatik. Ez dituzte zuzenean irakurtzen. Desberdintasun itzela dago

Kixotearen laburpen bat edo Kixotearen orrialde bat irakurri. Nola maita dezake ikasle batek Kixotea, laburpen bat irakurtzen badu? Gauza hotza da, zentzurik gabea. Soilik zuzenean irakurrita, irakasle egoki batekin, ulertuko dituzu gauza batzuk, gaurkotasan handiko mezuak dituela: adibidez, egun pentsatu arren lehena iristen den pertsona dela merezi duen bakarra –etikoki gauza lausoak egin arren–, Giordano Brunok zioen: “Bizitzan benetan balio duena ez da lehena iristea, zure bidea duintasunez egitea baizik”.

“ ”

Ez ditugu hiritar kultu eta kritikoak hezten, kontsumitzaile pasiboak sortzen ditugu

Kavafisen poema hartan bezala, helmuga baino, bidaia dela garrantzitsuen.

Ulisesen mitoa modu bikainean interpretatzen du Kavafisek, garrantzitsuen ez baita Ithakara iristea, bidean bildutakoaren esperientzia baizik. Bizitzaren gau-

zarik ederrena ez da helburua, helburua estimulu bat izan daiteke, baina esperientziak, esfortzuak, helburura iristeko egiten ditugun gauzen konplexutasunak inporta du. Nire ikasleei gauza horietaz hitz egiten diet: zein da ikasle baten benetako helburua? Izan daiteke dirua irabaztea ahalbidetuko dizun paperezko diploma miserable bat; baina hori beste gauza askoz garrantzitsuago baten ondorioa litzateke, izatekotan. Hobe izateko, zentzu kritikoa eskuratu beharko duzu inguratzen zaituen mundua modu original, inteligente eta autonomo batean ulertu eta analizatzeko.

Eskuineko alderdiek arrakasta daukate ezjakintasun handia dagoelako gure gizarteetan. Eta jakintza aukera izugarri baten gisara aurkezten da Internet, egia da: Errenazimenduko milaka testu irakurtzeko aukera ematen dit Calabriako nire etxetik, baina Internet egina dago zertxobait badakien jendearentzat, eta ez ezertxo ere ez dakienarentzat. Gauza bat da teknologia erabiltzea, eta beste bat da teknologiak gu erabiltzea, teknologiak bizitza lapurtzea, zure ideiak, intimitatea lapurtzen dizkizun anaia-handi moduko bat baita, gero, algoritmoen bidez, enpresei saltzeko. Eta zer mundu klase da gauzarik garrantzitsuenak “saldu” eta “erosi” egiten badira?

Kontraesankorra dirudi, klasikoek lekurik ez dutela dirudien mundu



batean, zureak bezalako liburuek, klasikoei eskainiak, halako arrakasta pilatu izana. Nola azaldu arrakasta hori?

Zintzoki, sekula ez nuen halakorik imajinatuko. Alarma dei gisa idatzi ditut, protesta keinu bezala, hezkuntzaren merkatu-ikuspegiaren kontra, gaur egunean eskola eta unibertsitatea suntsitzen ari dena. Baina esan beharra dut han-hemenka nire ideiak partekatzen dituen jendea aurkitu dudala, gutunak jasotzen ditut, ikasle eta irakasleen eskutik, mundu osotik. Plazer handia ematen dit, erresistentzia badelako tendentzia horren aurrean. Akaso milioi erdi irakurle ez dira ezer dirua irabaztea dagoen gauzarik egokiena dela uste duten milioien aldean, baina ulertarazten didate merezi duela borrokatzea. Porrot loriatsu bat da, nahi baduzu, nire pentsamenduak eta nire etikak eskatzen didatena egiten dudana neurrian, arrakastatsua. Irakasle naiz, ezin dut irakasten dudana moduarekiko diferente den modu batean irakatsi, eta hori litzateke benetako porrota. Hitz egiten dudana bakoitzean, sentsazioa daukat entzutuen nauen jendea badagoela, borroka hau egiazkoa dela sinesten duen jendea.

Hezkuntzaren garrantziaz hitz egin duzu liburuetan, hiritar autonomo eta kritikoak hezteko. Albert Camusek bere irakasleari esker onez idatzi zion gutuna gogoratzen duzu.

Irakastea ez da lanbide bat niretzat, bo-kazioa baizik. Askotan galdetzen didate irakasleek, zein den irakastearen sekretua. Gaur egunean irakasleentzako ikastaro asko dauzkagu, eta pedagogo asko dago tontakeria asko esaten dituztenak. Uste dute irakasle ona izateko irakaskuntza metodoaren ezagutza teoriko bat behar dela, metodo unibertsal bat, eta ez da egia. Lehen gauza diziplina ezagutzea da: literatura irakatsi behar baduzu eta ez baduzu literatura ezagutzen, ez du funtzionatuko. Bigarren gauza: irakasten dituzun gauzak maitatzea; ez badituzu maitatzen, ezin da maitasun hori transmititu. Sinets nazazu: 30 urtetik gora daramatzat irakasten, eta ikasleek hori sumatzen dute, argiki. Dirutza inbertitzen da ordenagailuak erosten, arbel digitalak, Internet sarea... Baina irakasle onik ez badaukazu, alferrik da. Hor kokatzen dut Camusen gutuna: irakasle onek bakarrik alda dezakete ikasleen bizitza.

“ ”

Zer mundu klase da gauzarik garrantzitsuenak “saldu” eta “erosi” egiten badira?

Euskaraz kaleratuko da aurki zure liburu-manifestua, *Alferrikakoaren balioa* (Pamiela).

Bai, eta balio handia ematen diot. Hizkuntza txikiak, handiak bezalatsu, oso garrantzitsuak dira, hizkuntza bakoitza mundua ulertzeko leiho baita; eta hizkuntza bat hiltzen delarik, beraz, leiho hori itxi egiten da. Oso harro nago liburu hori euskaraz agertuko delako. Ez zait inporta alde ekonomikoa, zenbat salduko den: euskarazko itzulpenak, galegokoak bezala, harro sentiarazten nau, jende batek nire liburuak aukeratu duelako, jendeari esanez: “Liburu hau garrantzitsua da gure kulturarentzat”. Arrakasta komertzial batek baino balio handiagoa du horrek niretzat. ●





LIBURUA

Igeri ala ito



DURANGOKO AZOKA

URA LEPORAINO USUE EGIA

DENON ARTEAN, 2022

AINHOA ALDAZABAL GALLASTEGUI

Gaur ekarri nahi dudana liburua 230 orrialde inguruko komikia da, Usue Egiak egindako material autobiografikoa hain zuzen ere. Durangoko Sor(tzaileen)-leku berekin bihurtu zuen hasierako Ustekabearen krak proiektua *Ura leporaino* eleberri grafikoan.

Liburua hiru ataletan banatuta dago: lehenengoa da orri gehien hartuko dituen, luzeena. Eguneroko forma duela hasieratik jakingo dugu, izan ere, "2020ko martxoaren 15a, igandea" lerroburuarekin irekiko du orrialdea. Data osoa ekarri dut, alde batetik, atzera begiratuz gero gehienok gogoratuko dugulako egun zehatz hartan zer egin genuen. Baina bereziki, liburuaren testuinguruan kokatzen gaituelako: COVID-19a zela-eta hasieran bi aste iraun behar zuen itxialdia inposatu zen eguna baita. Autoreak azaltzen duenez itxialdi horri ordena eman eta errutina bat sortzeko ahaleginean egunero bost orduz marrazteko erronka jarri zion bere

buruari. Lehenengo pertsona idatzia dago (bere buruari hitz egiten dion pasarteetan salbu), eta oso errekonozibleak diren anekdotak jasotzen ditu (etxean kirola egiteko ohitura adibidez); erabiltzen genituen hitzak ere agertzen dira hausnarketak egiteko ("erresilientzia" edo "normaltasun berria") eta horrez gain, protagonistak egun haietan izandako desirak, gauetako ametsak eta entzundako musikak zein irakurritako liburuek leku dezente izango dute.


Bigarren zatia nahiko motza da eta hilabeteko denbora-elipsia dago aurreko ataletik. Konfinamendua (1. atala) eta deskonfinamendu osoaren (3. atala) bitarteko lau egunen kontakizuna da, momentu bi horien arteko zubia. Ordura arte marraztutakoa hartu eta egindako lana berrirakurtzen erakusten digu autoreak bere burua. Lehenengo atalean erabili duen umore tonua erabiltzen jarraitzen du hemen ere, eta irribarre batekin irakurtzen ari naizela topatu dut

nire burua behin baino gehiagotan.

Hirugarren atalean pandemiak lekua izaten jarraitzen du (kutsadura, gaixotasuna, musukoa...) eta deskonfinamendu garaian autoreak bizi izandako esperientzia jasotzen du. Bukaera azkar samar gertatu dela iruditu zait, agian, hasierako zatiarekin deskonpentsatu samar.

Kolore urdinean egindako marrazkiek josten dute liburua eta binetarik gabeko orri konposizioak arnasa ematen dio irakurketari, Egiak berak dioen bezala. Aipatzekoa da marrazkiak moldatu gabekoak direla. Hau da, egun haietan sortu bezala daude liburuan.

Arnas faltan izan ginen gutako asko, eta ura leporaino gurela sentitu. Imajinatzen dut laster hasiko garela izurritte garaiko beste materialak irakurtzen. Baina eskertzekoa da Egiak egunerokoa erregistratu eta publikatu izana. Guk ere oroitu eta gure buruari perspektibadun errelatua egiteko baliagarria izan daitekeena. ●



MUSIKA

Zerbait garaian baletor...



ZOE MARTIKORENA



GAUDEN ALDIAN DESGARIAIAN

AUTOEDIZIOA, 2023

GORKA PEÑAGARIKANO GOIKOETXEA

Bizi dugun garaiari estuki loturik dator taldearen izena. Desgariaian datozen argi-ilunak manifestatu dituzte *Gauden aldia* diskoan, minenez, atsekabez eta amorrus jasaten duten basakeria zartzeko asmoz. Mina dakarte betazalean, baita belaunburuetan ere. Testuinguru belikoak eta pobretze masiboak eragindako mina, besteak beste. Askoren artean partekatua den desilusia, gutxienez.

Problematika ugari landu dituzte pop doinu ederrez blaitutako kopletan. Etxebizitzarena da horietako bat: oinarrian porlana besterik ez duten urbanizazio planak, "etorbide antzuetan landatutako bloke koloretsuak", txikiparkak diruditen Gasteizko auzune koloretsu, zabal eta eraikin altuetan pentsatzera eramaten gaituztenak... eta "postaletara esnatzea"

bezalako kontuak ere bai hizketagai, aski ezagun zaizkigunak kostaldean bizi diren ustezko pribilegiatuentzat. Ausarkeriarik ere badakarte, ordea: "Kostako herri ustiatuetan / eraisten eta altxatzen diren / habeen karranka / gazte tematuak / orubeok birjabetu nahian".

Desgariaian datozela esan arren, eta kritiketan azpimarra jarrita ere, sumatzen da badagoela desesperaziotik harago doan jarrerarik. Eraiki asmo dutelako eraitsi nahi dute sistema; eta ez eraitsi, eraiste hutsagatik. Badira argi izpi batzuk, ageri da esperantza, jardun politiko eta kolektiborako deia. Kritikatik eraiki nahia, alegia. Gogoan dut *Berria* egunkariari Jon Gurrutxaga taldeko abeslariak esandako hau: "Ezin duzu kantatu zoriontsu izango garela eta edertasuna gugan gorpuztuko dela, egunero beldurga-

rrizko egoera miserablean baldin badago jendea". Horregatik, errealitateari ihes egiteko, ihes bete horri "urratsak ostu beharra" jartzen dute mahai gainean, eta "itzultzeko modu bat finkatzen" hasteko garaia dela, honezkero premia bihurtu delako.

Zoriontsu izateko eta ez-dakit-zer gehiago esaten den garaiotan... "non da bizitza jateko gogo / jende ederra eza-gutzekoa" koro bete-betea kantatzen entzutea plazer handia da. Zuk bera jan beharrean, ez ote zaituen bizitzak zu jaten. Koro horretan eztarriak utzi genituen geuk ere Azpeitiko Gaztetxean eskaini zuten disko-aurkezpen kontzertuan. Parean tokatuz gero, egin faborea, utzi balizko diskrepantziak eta joan zuzenekora; diskoa bera mundiala bada, aurrez aurrekoak aberasten du-eta. ●



Mambo ibaiertzean!

✂ IÑIGO SATRUSTEGI 📷 TXANTREAKO JAI BATZORDEA

Laugarren eta azken gaua genuen Txantreako festetan. Auzokideen nekea agerikoa zen, logikoa, aurtengoak luzeak eta gogorrak izan baitira. Baina, hala ere, gorputzak astintzeko adina gogo bazen oraindik ere.

Lukiek taldeak ireki zuen Festaleku gunea iluntzean. Hotz hasieran, baina umoretsu eta giro ederrean amaitu zuten zuzenekoak. Berandu heldu zen jende asko, Baigorriko Nafarroaren Eguneetik akaso. Jaietako kontzertu handiena izango zena hasi aurretik, ordea, plaza goraino bete zen. Espektatiba handia zegoen, inondik inora, Goxua'n Salsa ikusteko. Ez da gutxiagorako, izan ere, zaila izaten da halako taldeak gunere herrikoietan ikusi ahal izatea, eta eskertzekoa da taldeek izan zuten prestutasuna.

Oholtzara igo ziren hamasei musika-

riak, zuri-zuri jantzirik, ohiko modura. Agurrak, txaloak eta txistuak. Publiko erraza zuten, eta lehen akordetik azkenara dantzan aritu ziren, bai musikariak, bai parrandazaleak ere.

Aurreko batean Amets Arangurenak aipatzen zuen bere kroniketako batean ez dela bertsioen zale, edo ez behintzat beti. Iruñeko salsa banda honek egin duena, berriz, ikaragarria iruditzen zait niri; baina ni ez naiz musikan aditua, beraz, ez gehiegi kontuan hartu. Oso polita iruditzen zait Gatiburen *Lorak eskaintzen*, eta Berri Txarrak *Bueltatzen* mitikoak doinu eta ahoskera latinoarekin entzutea, haiek gurera eta gu haienera gerturatzeko modu bat izateaz gain.

Baina momenturik izan bazen benera magikoa, hori Aldazena izan zen. Denok espero genuen gure auzoari es-

KONTZERTUA: Goxua'n Salsa.

NON/NOIZ: Maiatzaren 1ean, Txantreako festetan (Iruñea).

kainitako *Del puente para allá* kanta-egokitza penara, ez ordea, gure erraldioen eta kilikien konpartsako Piripi igoko zenik. Kantuak irauten duen sei minutetan, errapasoa eman zioten goitik behera hemengo leku eta ohitura kuttunei, eta argi utzi zubiaren alde honetan, ezer baino gehiago, txantrearrak gara. Amaitutakoan aldarrikapen mezuak bota zituen buruhandiak, eta gisa guztietako erasoak salatu.

Jarraian etorri zen DJ Pezón bikotea. Hauek jada tradizio bihurtu dira gurean eta jai *queerrikoiei* amaiera eman zieten, gerri-kolpez, bata bestearen atzetik.

Askorako eman duten festek, baina igandeko giroa nabarmenduko nuke, eta aipatu katuak dioena ezin hobeki laburbiltzen du: *mambo, mambo, mambo ibaiertzean!* ●



Hitz gezidunak

LANDU GABEKO LUR ZABALA ARTISAU ERARA		AUSTRIAKO BIZTANLE SUARI DARIONA		ZIZTAREN ONOMATO- PEIA		LEPOA INUDE		AHUL PERTSO- NAIAREN ABIZENA		EGIPTOKO ERREGE MENDEKU	
IKERKETA LAN BIGARREN LETRAREN IZENA											
		EUSKAL FONEMA ERTILARIK			OKELAREN ZAINA MASAIL		GANIBET TOLESGARRIA DAUZKAGU				
KIDE ZUNTZ									HARI, BIDE PREST		
				HARKAIZPE JIRA, ITZULIA						OMEN BURURATU	
PAIRAKOR	DEBEKU, GAITZESPEN PERTSO- NAIAREN IZENA				PASTEL HANDIAK UGAZTUN KARRASKA- RIA						GUNEA, EREMUA
							BASAMOR- TUKO BERDEGUNEA IPURTZULO				
ISLANDIAKO DOMEINUA ARRAUNON- TZI TXIKI			NABARI, BISTAKO LETRA IZENA					SUBSTANTZIA KANTITATE GAROA, IRATZEA			
					Osoa ESTRONTZIOA					500 SOZIJETATE MUGATUA	
LANPETU BAKETZERA BEHARTU						ANTZINAKO JANTZI DESEROSO ZEPTO					
								ANTXUMEA			

Sudokua

BETE ITZAZU GELAXKAK 1ETIK 9RAKO
ZENBAKIAK IDATZIZ, ZUTABE, LERRO ETA 3X3
KOADRO BAKOITZEAN ERREPIKATU GABE.

	2				3		5	
7	5				2	4		
				6				7
4		1	3		7		8	
				5				
5	8		6		9	3		1
9	6		2	7	4			
	3		8	9	6		4	2
2				3		9	6	

5x5

ZEHARRETARA ETA GOITIK BEHERA,
HITZ BERA.

- Herribilduetatik at dagoen ostatu.
- Edateko.
- Arre, gris.
- Jantzi dotore.
- Itxura, antza.

EBAZPENAK

5. AIREA
4. TRAJE
3. NABARI
2. EDARI
1. BENTA

8	9	6	1	3	5	7	2	4	7	2
2	4	7	1	3	5	7	2	4	7	2
1	3	5	7	2	4	7	2	4	7	2
5	8	2	6	4	9	3	7	1	3	5
6	7	3	1	5	8	2	6	4	9	3
4	9	1	3	2	7	5	8	6	4	9
3	1	9	4	6	5	8	2	7	1	3
7	5	6	9	8	2	4	1	3	5	7
8	2	4	7	1	3	5	7	2	4	7

V	M	U	V	I	Z	V	R	V	E	K	V	B
E	S	T	O	K	U	S	T	N	V	T		
D		I	A	T	Z	U	G		T	E	T	B
L	O	M	N	U	G	V	Z	E		S	I	
V	I	S	O	U	S	T	U	R	I	V	P	
K	A	T	R	V	T	U	B	V	T			
I	E	P	Z	I	V	H	I	R	V	H		
O	E	I	D	E	I	T	V		P			
V	N	B	V	L	G	Z	T		E	B		
R	E	K	U	M			I	S	E	T		
V	M	V	Z	V	H		Z	U	K	S	E	
F	M	S					V		E			

Xabier Santxotena

ESKULTOREA



"Gure herria matriarkalista da eta beste nortasun bat eman nahi izan diet eskulturei"

Xabier Santxotena Alsua (Bozate, 1946) eskulturgilea da. Egurra du lanabes, eta pieza erraldoiak egiten ditu. Buru-belarri dabil uneotan emakumeei eskulturen bidezko aitortza egiten. Agota dela dio harro, "egurraren gremio edo kolektibokoa". Jorge Oteiza unibertsitate izan zen harentzat, eta 54 urtetan 100 obra inguru sortu arren, ez da nekatu: "Eskultura jolasa da". Alabaina, instituzioen laguntzarik ezean, museoak desagertzearen arriskuaz mintzo da.

 IZAR MENDIGUREN COSGAYA

HIRU MUSEOTAN, 100 OBRA

"1998an ireki genuen Bozateko lehen-biziko museoa, Baztanen, eta bigarrena 2003an. Agoten historia eta Euskal Herriko mitologia erakusten dugu, hemengo sinesmen guztiak. Erreka bazterrean dago museoa, leku zoragarrian. Artziniegakoa, berriz, tailer museoa da; beste filosofia bat dauka. Zirriborroetatik piezak bukatzerainoko bidea azaltzen dugu han, gure jolasa eta arnasa dena. Adin guztietako pertsonak etortzen dira. Behin, Artziniegan, Gallartako 5 urteko umeek, tailer-bisitan, sekulako piezak egin zituzten burdinarekin! Oteizak zioen 5-10 urtekoek jenioen mentalitatea dutela, konplexurik gabea, eta bat nator adiera horrekin. Horrelako gauzak erakusten ditugu hemen: museoak ez dira ikusteko, bizitzeko baizik. Eskultura jolasa da".

Azken mohikanoa ez, baina "azken agota" bai, akaso?

Harro nago agot izateaz, ederra da. 2019an aurkeztu genuen *El orgullo de ser agote* ("Agot izatearen harrotasuna") liburua, eta bertan azaldu genuen doktore tesia, agoten ideologia, lanak zein historiako gertaerak. Eta hemen jarraitzen dugu.

Zer nolakoa da 2023an agot izatea?

Agotek egurrarekin garraioak, armak eta bestelakoak egiten zituzten. Egurraren gremio edo kolektiboa da agotena. Lehen dokumentuak 626 urtean agertu ziren Paue inguruan. Historia izugarria da: 1213an inksiziotik ihes egin genuen, ordurako kolektiboa ginen. Erromanikoan harginak ziren kolektibo ospetsuena, baina gotikoan egurgileak ziren estruktura guztiak forratzeko gai. Parisen zortzi katedral egin zituzten agotek, tartean Notre Damekoa. Herri txikietan elizan sartzea ere debekatu ziguten, pentsa!

Mende erdi daramazu eskulturak egiten.

Ideietatik hasten naiz formak egiten. Gernika, Ukrainako gerra... Salaketak dira batzuk eta aitortzak besteak. Historian sakonduz nortasuna eman nahi diot eskulturari. 50 urte ingurutan egindako lanak nire museoetan ditut. Nire aita tailagilea zen, eta aitatxi zurgilea. Egurra beti egon da gure etxean, beraz. Soldaduska ostean hasi nintzen eskulturgintzan, 1969an. Jorge Oteiza oso laguna izan nuen, eta alarguntzean nire etxean geratu zen. Nire lanak ikusi nahi zituen, eta bere laguntza psikologikoak asko lagundu zidan: unibertsitatea izan zen niretzat.

Baztango museoan eskultura erraldoiak ditut, burdinezkoak, brontzezkoak, egurrezkoak eta hormigoizkoak, besteak beste. Museo horretan ez ezik, Borda museoan zein Artziniegan ere baditut beste asko. Vatikanon badut pieza bat, Aita Santuari Azpeitiko Udalak emandakoa. Baina 100 piezatik, 97-

98 nik ditut hemen jasoak. Pasio handiz bizi dut hau guztia.

Emakumeen buru eskulturak egiten zabilta orain. Aitortza eta presentzia faltagatik, akaso?

Euskal Herria beti izan da matriarkatua. Gure amonak administrazioa, edukazioa eta errespetua erakutsi zigun. Hamar bat buru eskultura ditut eginda jada: Elbira Zipitria (lehen euskal andereñoa), La Pola (Policarpa Salabarrieta, Kolonbian tiroz eraila), Graxiana Barronetxea (Zugarramurdin erre zutena, sorgina zela leporatuta), Polixene Astrabudua, Dolores Ibarruri, Katalina Erauso... Orain, Toti Martinez de Lezea egiten ari naiz, eta hurrengoak nire bi amonak izango dira. Lehen, gizonezkoen buruak egiten nituen: Oteiza, Unamuno, nire aitaxi... Zortzi egin nituen, baina emakumeak egitea erabaki nuen gerora. Gure herria matriarkalista da, eta beste nortasun bat eman nahi izan diet eskulturei.

Euskal mitologiak gorpuzten du 32.000 metroko Bozateko museo parkea.

Anbotoko Mari, Mikelats, Galtzagorri, Gaueko, Lamiputzu... Ipuinak dira denak, eta gure sinesmenak ekarri ditut. Jendearekin piezak eta esanahia partekatzean dago joko, artea ulertzean.

Arte bidezko historia entziklopedia da zurea, eskulturen labirinto bat.

Meditaziorik gabe ez dago aurrera egiterik, pentsatu egin behar da. Hiru-lau hilabeteko lana da buru eskultura bakoitza egitea, baina bestelako gauzak ere egiten ditut tailerrean, buztinarekin eta egurrarekin. Txandakatzen joaten naiz astegunaren arabera.

Nola ikusten duzu egurgintzaren edota eskulturgintzaren egoera?

Eskulture asko daude Euskal Herrian, baina laguntza ekonomikoak falta dira. Oteizak zioen museo sarea egingo zela Euskal Herrian, eta munduko lehen postuetan egongo ginela. Nik hitza hartu nion. Zer gertatzen da? Laguntzak behar direla. Oso lan astun eta zikina da, eta instituzioek lagundu gabe pobrezia handia da. Instituzioak egon arren zenbateko kostua dute Guggenheimek, Tabakalerak, Artiumek...? Eta bertako artisten laguntzek?



"Salaketak dira obra batzuk, aitortzak besteak. Historian sakonduz nortasuna eman nahi diot obrari".

Hitzarmenak beharrezkoak dira, bestela museoak itxi eta ardiak sartuko ditugu bordan.

Beraz, Euskal Herrian artista asko daude, baina museo eta laguntza gutxi?

Burdinarekin aritzen diren artista gehiago daude, baina egur eskulturgintzan gutxi gabilta, oso gutxi. Euskal Herrian, hasieran, familia guztietan eskultoreren bat

zegoen, baina gaur egun ez. Zaila da eskulture gisa bizitzea. Obra bikainak daude, baina derrigorrezkoak dira laguntzak.

Zenbat buru, hainbat aburu. Etorkizunari begira, zer duzu buruan?

Lanean jarraitzea, baina ez dut jada tokirik hemen, eta arazoa da hori: Bozateko parkeetan zein Artziniegan ez dut eskulturentzat lekurik jada [barre egin du]. ●

Ogiaren konkista

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

Herriko auzo berriko okindegi-kafetegira sartu da erosketa-poltsarekin kargatuta doan bezeroa eta begiratu du ea ogi-barrarik geratzen ote den, bazkalaurrea baita, eta normalena litzateke honezkero jendeak zegoen guztiari atzaparka egin izana. Noizbait lortuko balu dena goizago egitea, ai, orduan. Baina gaur behintzat zorte oneko dago, bada ogirik. Ez hori bakarrik, arto-ogia ere geratzen zaie.

Aukera daukanean hori erosten du, zeliakoa ez den arren, nabaritu duela-ko glutenik gabekoak askoz leunago geratzen zaizkiola estomakan. Osakidetzan proba eskatu behar lukeela darabil buruan azkenaldian: igual beste gauza asko bezala da hau ere, eta inor ez da ontologikoki zeliakoa. Agian zeliakozeliakoek baino gutxiago izan arren, berak ere badu horretatik zerbait. Gero Googlen begiratu behar duela pentsatzen ari den bitartean eskatu du:

–Arto ogi bat, mesedez.

Bestaldean lanean ari dena ikusten du, “Oliba-ogia / Pan de aceitunas” jartzen duen lekutik barra hartzen.

–Perdona, te he pedido un pan de maíz –zuzendu dio.

–Ah, como has dicho oliva...

–No, te he dicho “ogi bat”, o sea, “un pan” –lehenbiziko pertsona izan ote da okindegi honetan “ogi bat” eskatu duena?

–Mira –esan dio ernegatuta– yo euskera no hablo. Castellano, inglés y francés sí.

Hori da paumaren gogoia lumak erakusteko. Lasai egon gaitezke lokal honetako pertsonal poliglotari esker: prest daude eguraldi onarekin –tira, ona: maiatzean 35 gradutara iristea ona den neurrian– herrira etortzen hasiak diren turistentzat. Pena da konkretuki honek aukera gutxi izango duela mingaineratu dituen dohain linguistikoak luzitzeko, giriren batek giro hau bilatzen duenerako olibak arto bilakatuak



izango baitira. Turisten artaldeak mui-noaren bestaldera eramaten dituzte bazkatzera, arrantzale-etxe xarmantei argazkiak egin, pintxo batengatik 5 eurotik gora pagatu eta ontzi xuri politak uraren gainean ikusi; tankera horretako *esperientziak*.

Aldiz hemen, gauza interesgarri gutxi. Bere hizkuntzan aritzeko mania puta daukan tipo hau bezalakoak. Asuntu honi ogi-saltzaile euskas, euskamuts, euskamets honen aldetik begiratzen dion jendearentzat, izan ere, bezeroak ez daki berak baino hizkuntza bat gehiago, bezeroak daukana da mundu zabaleko hirietara –Laglande! Bitchfield! Guarroman!– irtetea eragozten dion atrofia mental bat. Euskaldunak zer jakin dezake ba, euskaraz gain?

Amorrazioa akoltzatzen duen ahotsdoinu abegikor batekin, bereari eutsiz irten da bezeroa hala ere, “eskerrik asko” bat airean utziz, erosketa-poltsaren kondena esku batean, arto-ogia, garaipenaren ezpata, bestean.

Bezeroa beti bezero, prezioak konparatzen pasa du etxerako bidea, benetako problema horretan datzala ulertzearaino. Hizkuntzen merkatu-balioan, alegia. Hizkuntzekin dugun harremana dibisetan inbertitzearen pareko bihurtzean. Ogi-saltzaile poliglotari norbaitek sinetsarazi baitio beste mintzaira horiek ikasteak irabazi handiagoren bat emango ziola bere lana saltzeko orduan. Norbaitek sinetsarazi dion bezala euskaran inbertitzea apustu galtzailea dela.

Bezeroa beti bezero, dena den: hurrengoan ogia beste leku batean erosteko erabakia hartu du. Hartu duela uste du. Etxean, kozinatu bitartean, ogiari koskorra kendu eta ahoratu duen arte. “Ze mandanga ona”, esanez aurkitu du bere burua. Bezeroa beti bezero: produktuak garaitu duela jabetu da, itzuli beharko duela. Eta ez daki hurrengoan euskaraz eskatuko duen, ala leku horretan ogiaren konkistarako hobeto funtzionatuko dion formula erabiliz: “One baguette de maíz, por s’il vous please”. ●



ZIBURUKO EUSKAL
LIBURU ETA DISKO
AZOKA

ZIBURUKO 4. EUSKAL LIBURU ETA DISKO AZOKA

EKAINAREN 3AN
PILOTA PLAZAN



ANTOLATZAILAK



PARTAIDEAK



ZIBURU
CIBOURE



Bertsoa eta umorea ardatz,
Señora Sariketaren jarraipena
egingo duen bideo-podcasta.



Hiru saio izango dira,
maiatzaren 11n hasita.

Ostegunetan ARGIAren webgunean eta
ohiko plataformetan ikusgai.

 [ARGIA.eus/podcast](https://argia.eus/podcast)

